

ZIRTO-SESTO-“TXISTE” TA IPUIN-IRAKURGAI

BARRE ERAGILEAK

BIZKAIERAZ



EGILEA.- OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ARGITALTZAILEA


ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

BILBOKO UDALAREN DIRULAGUNTZAZ

ZIRTO-SESTO-“TXISTE” TA IPUIN-IRAKURGAI

BARRE ERAGILEAK

BIZKAIERAZ



EGILEA.- OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ARGITALTZAILEA

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

BILBOKO UDALAREN DIRULAGUNTZAZ

Lege Gordailua: BI-2321-02

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Flash Composition S.L

Alda. de Rekalde, 6-48009 BILBAO

AURKIBIDEA

GALIZIAR ETA MADRILTARRA	9
JAITXITEN ZILLEGI EZ	9
BAIMENA	10
SEI OGERLEKOAK	10
OILE MARGODUNAK	10
EZKONDU EZKERO EZ AIN URBIL.....	11
ESKEKOEN ARTEAN	11
ABADE BATEN ERITXIAK	12
SERMOIA	12
IKASTETXEAN	12
ZIZARAK	12
ABIADA LARREGIAN	13
EDALARIA	13
TXERU TA KOLDON ALKAR-IZKETA.....	13
URRUTIZKIÑEZ-TELEFONOZ	14
ORDULARI	14
ONTZI-GALTZAILEA	14
EPAITEGIAN.....	15
ERREGENAK	15
TRENEAN	16
ABERE GARAZLEA	16
LASARTEKO ARIÑEKETA	17
SURRUTADA LARREGI	17
LELOKERI AUNDIAGOA	17
GIZON ZINTZO LERROA	18
BASERRITARRA TA IDAZKARIA	18
ON JAUN BAT	18

ERRUA ZEUREA	19
UMEAREN IKUSPEGIA	19
ZUGAITZ OSPETSUAK	19
EMEN BE LANA?	19
ARRANTZALE ARTEAN	20
BABESA	20
EMAKUME BATEN LARRITASUNA	20
TXOMIN BETERRE TA MUTIKOAK	21
BOTOIAK JOSTEA.....	21
“APENDICE” ZETARAKO DAN.....	22
INDIATARRA	22
ANDRA ZIÑEZKOA.....	22
ORMEA ALPERRIK	22
AMAMA	23
ALDIKOZ	24
IZENPE BI	24
PETRONILAREN OILOA	24
LAKUNTZAKO MANDAZAIÑA	25
LURRAKO ATSEGIN-TOKIA	27
UME GALDUA	30
BERREUN OILO TA LORITO BAT	30
LO KUKUTXUA.....	31
ARTE TA INGEA	32
LEGE-ZAIÑA	32
AUTEZKUNDEAK.....	32
UMEAREN NEGARRA	32
SAGUTA LAKIOA	33
ARRATOIAK.....	33
EZITZE ONA.....	34
EMAKUME BARDIN-BARDIÑA	34
EMAZTEA EZAGUTU	34
IXIL-IXILIK	34
OSPE ONA	35
EZKONTZARA GELDIRO.....	35
DEN-DAN NOR ARRAIO DAGO BA?.....	35
EZIZENA	36
IZEN ONA	36
ANDIK DANOK IGARO BEAR	37
AGUREA TA SENDORRA	37

EUNEKO BAT	37
IJITO TA TXAPEL-OKERRAK	38
TXAKURRA SALDU EZ	39
LARUNABATETAKO ALOGORA	39
PIPER LANDARAK	39
ZORRAK ORDAINDU	40
JAKEA JAUSI	40
EUSKAL-KONDAIRA	41
IL-ZORIAN OSASUN ONA	41
EBAGI ONA	42
TXAKURKUMAK	42
ZIURTASUNA PREMIÑAZKO	42
KOXEPA ASTRONOMUA	43
ABERASTUSUNIK BEREZIENA	45
EMAKUME ALKAR-IZKETA	45
LANA EZIN UTZI	45
DIRU-ESKURATZE BEZELAKO SUKALDARI	46
EURITZE	46
AZAK BURUZ BERA	47
EBAKETA ZELAN EGIN	47
LAN-UKATZE	47
SEME-ALABAK NONDIK DABILTZ?	48
GOGO-SENDAGILEA	48
ALDE ONAK ETA ALDE TXARRAK	48
ZAARRA ALA BARRIA?	49
EZKONTZEA	49
GOIZEKO ORDU BIAK	49
IZARAK-OE-IZARAK	50
GIZON BERE-KOIA	50
ULEA DUAN MOZTU	50
GUZUR ONDOREA	51
OLERKARIAREN ASKARIA	51
NORTASUN-ARAZOA	52
ERABILLI-AGIRIA	52
BURUA BETI SORBALDA GANEAN	53
URAK MOZKORTU	53
GAZTETASUNA LORTU NAIAN	53
ZIRKOAN	53
BAZKARI LAGUNA	54

ITXASOAN ITO-OGEAN IL	54
ELEFANTE-BELARRIA	54
NIRI ZER?	54
LEKAIMEAK ETA KOTXEA	55
URRUTIZKIÑA-TELEFONOA	55
SAGARRA BERE ADARREAN	55
SAGAR ERREA	55
ATXANDAKO MENZULOA	56
LEIAR GEIGARRIA	56
BARRUKO EDERTASUNA	57
TALDEAN	57
AURGITE	57
ZORI TXARRA	57
JOLAS ALDIA	58
IZARPEAN	58
TOPEKADAKA	58
ERA BEREZIA	58
ZALANTZAKO	59
ZENTZALKI BIKAIÑA	59
GABAKO LANA	59
MOZTASUNA	59
ASTIAREN ARAZOA	60
BARRIKETAN	60
GOGARPENAK	60
IZOTZETAN	61
ZIDAR ETA URRE ESTUGUAK	61
ADISKIDETASUNAK	61
ERRETAKO BAIMENA	61
BEREALA ETORRI	62
ZIZPILLOEGIAN	62
PERETXU TA MANUTXU EIZTARIAK	62
LANTEGIAN	62
BURU-ILTEA	63
IZERDIA ERAGITEKO	63
BAZKARIA DAANONTZAT BIZKAIÑA	63
LEIAR ZATIA	63
GUZTIA ERREZA DA	64
ALDAATZ-BERA DA	64
DAIETSA	64

GALIZITAR ETA MADRITARRA

Ameriketean urte luzeak emon ondoren galiziar bat etxeratu zan. Neke aundiz eta egunero-ko lan gogorrez eskuratuko diru batzuk ekarzan. Galziarrak izan be dirua aurreratzeko gizon bereziak dira. Nekez irabaziko dirua botaka erabiltea be, gizaki burudunena dala ez dot uste.

Jouse, galiziar oneri, olan zan bere izena, egun baten Madriletik ibillaldi bat egitea bururatu jakon. Antziñatik ikusten ez ebazan adiskide ta senide batzuk agurtu ta atsedean apur bat artu jolas-egiñez, egokia ta atsegingarria izango litzakela eritxon. Asmu orregaz Udabarriko egun eguzkitsu ta argitsu baten Madril lurraldeak oinperatu ebazan. Osaba-izeko lengusu ta urruneko aideak agertu ondoren bere erritar antziñako adiskide batzukaz orduak alai ta pozik emoten ebazan.

Josuen adiskide taldean madriltar batzuk be ba ziran, eta egun betan oneitariko batek ara zelako garazketa ostandu-eziña, baztertu-eziña, opatzen dautsan.

Zu Josue, emen Madrilen darozuzan egunetan uri onetako gizartearen bizi-bide oparotsuaz nabarituko zintzan. Neska-mutil, andra-gizon aldra kopurutsuak edantegi ta jolastokietan dirutsa izugarria iragiltzen dabela konturatuko zan, ta beraz aukera ezin obea garazletzan edantegi barri bat bezerori opatzea, ta zeuri ondo ba deritxazu, zuk ameriketatik ekarriko diruakaz lan-kideak izango giñakez. Emen Madrilen edantegi barri bat idegitea egokia izango litzake. Urte asko barik aberastuko giñakez.

Ederto erantzun eutsan galziarrak. Zuk ardao ipiñiko dozu.

Eta zuk? Madriltarrak itaundu eban.

Nik, ura ipiñiko dot, galziarrak iñotsan.

JAITXITEN ZILLEGI EZ

Benetan gertaera barregarria nire adiskide Koldori joan dan astean jazokoa.

Berak gura, nai, ez arren, urtetan naiko sarturik dan andrazko bat faun baten sartzen da, eta beste andra-gizon aldra bezela zutunik joan bear dau. Geltoki batera eldutean bere alboan mutil gaztea toki beratan jaitsiteko asmuz bere jezarlekutik zutuntzen abiatzen da. Baiña une beratan ipuin edo tortika onen aintzindariko emakumeak mutilaren sorbaldetik bera bultz egiñez ez dautso jaitsiten zellegiten, bera, andrazkoa, zutunik be joan leitekela esanez.

Aurreragoko geltokian Koldo barriro faunetik jaitsiteko asmuz zutuntzen saiatzen da, baiña emakumeak be barriro sorbaldetik beranz bultz egiñez ez dautso jaitsiten zillegiten, ain zaar itxura eta dauan kezkatu gogoratuz.

Arik unetxu batera barrero urrengo geltokian Koldo jaitsiteko zutuntzen alegintzen da, eta emakumeak ez dautso zillegiten. Azkenean Koldo guztiz asarraturik emakumeari diñotso.

Ondo da, faunetik urteten zillegitik daustazu? zure erruz jaitsi bear neban lekutik urunki nago, iru geltoki aurrerago aurkitzen naz.

BAIMENA

Olako gertaerak edo antzekoak lantegietan sarritan jazoten dira.

Baiñola nire lantegiko langile bat, mutil gaztea bera, bere nagusiaren aurrean auzkerturik, arratsaldean osaba baten iletak dirala ta jaia artzeko baimena eske, joan zan.

Lantegiko nagusiak eskaria zuzena zala ikusirik, baietza emon eutsan.

Egun aretan arrastian uri beratan garrantsi aundiko ostikoketa, futbola deritxon, saio bat egoan.

Lantegiko nagusia kirol-zale amorrotua, Atleti-zaletoa izanik, eta oitura eban lez, saio, partidu ori, ikustera joan zan, eta ara non, goizean baimena lantegira lanean joan ezteko eskatu eutsan langilea asmu bardiñeaz joanda kirol zelai aretan non ikusten dauan.

Baiña zu gazte, gaur arrastian osaba baten, zure osaba baten, iletatara joan bear zendula ez zeustan esan ba?, alkar ikusi orduko lantegiko nagusiak esan autsan.

Bai, olan da, diñotso gazteak, baiña ondiño apur bat itxaron bear dot.

Baiña, zeri itxaron?, nagusiak jarraitu eban. Zure arazoa zein dan, mezedez azaldu eistazu.

Gazteak aurpegia bat be gorritu barik diñotso.

Ara jauna, apur baten itxaron bearra dot, osabea ondiño ez da il.

Argitasun zeatzago bat emote arren, gazteak jarraitu eban.

Nire osabea zelai kirol tokian baltzez jantzita dabillen “arbitro” ori da.

SEI OGERLEKOAK

Nire auzuneko Tximintxu, mutiko kozkorra, oso azkarra, itxuraz beintzat, deritxat dala. Ikastetxean leengonetariko da, bere amari esanak zintzo egiten dautsaz, eta beraz bere aita-amak beragaz oso pozik dira.

Gaur goizean ogerleko bi bere amari eskatu dautsoz, eta onek guztiz arriturik diñotso.

Baiña seme, atzo emon neutsuzan sei ogerlekoak non dozuz ba?

Gizon beartsu, txiro bateri emon neutsozan ama, mutilak erantzun.

Ederto egiña seme, ederto egiña, jarraitu beti olan. Lagun-urkoari legundu ta mezede egin Baiña gizon orreri ogerlekoak zergaitik emon zautzazan ba?, amak esan eutsan.

Kalean gozoak saltzen ebillelako ama, semeak erantzu eutsan.

OILE MARGODUNAK

Migeltxu, gizon txantxelaria bera, apur bat makaldurik ebillala ikusirik, bere bestaldeko Txomiñek iñotsan.

Migueltxu, Osagilleagana joaten ba az obeto egingo dok, ire itxura kazkarra dok. Biar goizean joan nai ba dok neure laguntza izango dok, neuk be tentziño edo ori azpalditxutik ez jakit

zelan dabillen. Naizta Osagileak esango daustana jakin. "Txomin, Txomin, Kirru ardaosaltzaleaz adiskide izatea osasunerako ez da bat be egoki", esango jaustak.

Ederto, Migeltsuk, erantzun eutsan.

Biramonean or doa nire bikotea Osagileagana.

Migeltxu Osagileak zeatz arakatu ondoren diñotso.

Arretaz aditu eizu Migel, Oile gorri oneik urdailarako dira, orlegi biotzerako eta zuri oneik, oile zuri oneik, gibelerako dira. Ulertu dozu ondo Migel?

Bai jauna, guztiz ondo gaixoak erantzun eban, orain eurak, oileak nora joan jakingo dabela uste dot, nire gorputzean barnarutzen diranean nora joan jakingo dabela, itxaroten dot.

EZKONDU EZKERO EZ AIN URBIL

Atzo arrastian zer jazo jatan ez dakizu Miren, bere lagunari Edurnek iñotsan.

Astia larregi neban ezkerro, apur bat nasaiago emote arren akeitetxe baten sartu nintzan. Bezero gabe egoan mai baten jezarririk, bertako morroiari garagardoa eskatu neutsan. Errekin atera ta nasai-nasai bera erretan astia emon neban.

Arik unetxu batera neure aiñako adiñeko mutil gazte bat sartuta edantegiko gelo osoa begistatu eban, eta beratan mai utsik, mai bat bezero bakoa ez egoala ikusirik, neu jezarrita nengoan maian jezarteko baimena eskatu eustan.

Mutilak "ejekutiboa" zala deritxen, bere esku lan-zorrotxuaz. Neure aurrez aurrez jezarrita, mutilak be nasai nasai errekin bat atera ta garagardoa edantegiko morroiari eskatu eutsan.

Aurrez aurrez gengozan, bai, baiña alkarrerri iztxu bat be egin gabe. Mutilak orri baten oarpen batzuk egin ebazan eta asti polita igaro ondoren, edantegiko morroiari zenbatza eskatu eutsan. Arik unetxu batera zenbatza ordaindu ta beste oarpen batzuk egin ondoren agurtu ninduan eta beste barik alde egin eban.

Niri be alperkerian egoteko epea amaiturik, morroiari zenbatza eskatu neutsan, eta arritasun osoz entzun neban iñostala.

Zure garagardoa zure gizon, senarrak, ordaindu daust.

Baiña zelan, erantzun neutsan, ni ezkongea ba naz, nik ez dot gizon, senarrik.

Morroia be arrituta esan eustan,

Alkarregaz itz, barbarik egin barik egon zarien lez, senar-emazteak ziñiela uste neban.

Bai, Olako jazokera bakanak zoritxarrez izaten dira. Ezkongai aldietan neska-mutilak alkar laztantzen, alkar jan naian eta ezkondu ondoren alkar naiko urrundurik.

ESKEKOEN ARTEAN

Kolgotu ta Antton-guzur nire errialdeko eskeko bi ospetsuak dira. Egunero eguntxu bat utzik egin barik basetxetik basetxe, etxerik etxe euren zeregiña betetzen gogotsu izaten dira, au da, eurak diñoan lez, egunero jan bear da ta, amoin baten eske.

Joan dan Larunbatan euren lanean ziarduela alkarregaz topatu ziran. Intxaur adartsu baten azpian kerizpetan atsedean apur bat artzeko asmuz, euren lana gogorra da ta, jezarrri ziran. Ara emen euren alkar-izketa.

Anttonek iñotson Kolgaturi.

Zu Kolgotu, sei mila laurleko aurkituko ba zeunkez, zer egingo zeunke?

Sei mila laurleko! Kolgaturi sei mila leurlleko dirutsa ikaragarria eretxiten jakon, dirutsa orregaz ez dakit zer egingo neuken, Kolgatuk iñotsan.

Ba, nik bai, nik ba dakit zer egingo neuken, Anttonek erantzun eutsan.

Ara, iru mila laurlekogaz neu lotuko nintzake, beste iru mila laurleko zeuri emongo neuskizu, eta beste mila pesetak, txiro, beartsuentzat izango litzakez.

Une onetan Kolgatuk Anttonen izketa eten eban esanez,

Ez, ez, txiroentzat txakur txikirik be ez. Zer? Eurak, txiro, beartsuak, iñoiz amointxu bat emon dautsue ala?

ABADE BATEN ERITXIAK

Nire erriko abadea oso azkarra, buru argikoa da. Ara emen joan dan igandean egin eban itzaldia, Meza Nagusian egin eban itzaldia.

Igande ta jai-egunetan nire eleiztarrak andra-gizonak euren seme-alabakaz, ain apain, doto-re jantzita, soifneko ta pitxi garestiakaz apaindurik ikustean, neure buruari itauntzen dausat.

Nire parroko eleiztar txiroak, non dagoz? Baiña Mezea amaitu ondoren, abadeak jarraitzen eban, beratan, Mezan, eskuratuko dirua zenbatzen dodanean, orduan nire baitan itaun barri bat egiten dot.

Nire parroko aberatzak, non dagoz?

SERMOIA

Nire adiskide Mikel bere lagunakaz ia egunero egiten eban lez, luzaro iluntzean txantxetan egon ondoren, edantegiak ziran Mikelen egun orretako egoitza, bere etxerantz joiala, beste gau-txori lagun bategaz topaturik, onek, bere lagunak, itaundu eutsan.

Kaixo Mikel, gaba erdian ain alai nora zoaz, ba?

Sermoiara, Mikelek erantzun, itzaldira.

Ordu onetan sermoira? Non eta nok itz egiten dau ordu onetan ba? Gaba erdian? lagunak diñotso.

Neure andreak, etxeko sute, sukaldean, nire emazteak, Mikelek erantzun.

IKASTETXEAN

Ikastetxe baten bertako kimi-irakasleak, garrazki, azido, batzuen bereiztasunak ikasle azaltzen eutsazan, esanez.

Begira eizu zelan zidar-txanpon au garrazkiaren barruan sartzen dodan. Uste dozu urtuko dala?

Ez jauna, ikasle batek erantzun eban.

Esan eistazu arren, zergaitik ez?

Txanpona urtuko balitz garrazkira ez zenduan botako.

ZIZARAK

Gure erri-aldean zoritxarrez ukondoa jasoten dabenak larregi dira. Onetarik bat nire auzuneko Pedrotxu da. Nire auzokidea elizatik ez-eze eleiz albotik be igaroten ez dozu ikusi al izango, ostera eleizatik urbil dagon edantegian asti luzeak txantxetan emoten dauz.

Erriko Osagillea, On Juan, iñon gizon zintzorik ba da, bera da orreitariko bat, Pedrotxun griña txar ori baztertu egian oso arduratzen da. Sarritan Pedrotxugaz gai onen buruz alkola edatearen buruz alkar-izketa luzeak izaten dauz.

Egun baten, osasunarako gizasemeen osasunarako alkola oso kaltegarria dala erakutsi naian, eta luzaro eztabaida gai onen buruz izan ondoren egiztapen au agertu eutsan.

Urez beteriko ontzi bat artu ta beratan, uretan, zizara bat sartu eban. Zizara uretan alai, pozez beterik iger, uger, egiten eban. Bereala beste ontzi bat ardaoz beterik egoenean beste zizara bat sarturik, au, zizara, tximista batek jota bezela bereala ilten da.

Orduan Osagileak Pedrotxuri diñotso.

Ikusten dozu, uretan zizara pozik bizi da, ostera ardaoz beteriko ontzian sartu orduko, ilda. Orain zer diñostazu?

Osagile jauna, ardao-zaleak iñoiz zizararik ez dogula ezagutuko, adierazoten dausku.

ABIADA LARREGIAN

Au ez, ez, au gure errialdean ez zan jaso. Beti urritarrak eta auzokideakaz txantxetan ez gara ibiliko. Au Kanada lurraldean jaso zan.

Txangolari bat, Kanadan erbestekarra bera, bere amamagaz egun batzuk emon ondoren bere etxerantz etorrela, ertzain batek gelditu eban, esanez.

Abiada larregian etorri zara ta zigortu bear zaitut. Nire naia ez da zu zigortzea baiña legeak olan agintzen dau.

Ara jauna, txangolariak erantzun eutsan, ni atserritarra naz ta zure erriko legeak osoz ez dodaz ezagutzen, parkatu eistazu, ta kotxean naraozan gozoki batzuk, nire amamak egindako gozoki oso gozoak, opa nautsazan, eta adikoetasunez alkar agurturik, bidalian jarraitu neban.

Arik bitarte ez ain luzera beste ertzain batek ara non gelditzen nauan.

Baiña jauna, ertzaiñari esan nautsan, zergaitik gelditen nozu?

Ez, ez iñongo lege-austerik ez dozu egin, baiña gozoki gozo-gozoak emoten dauzuzala esan dauste eta.

EDALARIA

Barriro be ardao, edari-zaleak. Izan be, ardao, edari-zaleak txantxegarriak dira.

Txantxeta onen aintzindaria edantegi batera sarturik, bertako edari-saltzaileari iru txola wiski eskatzen dautsoz.

Bata bestearen atsean edanda gero, beste iru txola eskatzen dautsaz.

Orduan edari-saltzaileak edalariari diñotso.

Ori ez da bat be ona.

Bai, jauna, errazoa dozu, batez be daukadanagaz.

Zer daukazu ba? Edari-saltzaileak itauntzen dautsa.

Ogei ogerleko soilki, uts-utsean, nire diru-zorrotxuan ogei ogerleko soilki daukadaz.

TXERU TA KOLDON ALKAR-IZKETA

Euren erriko kaletik ziñoazala Koldo bere adiskide Txeru begi bat estalduta eroala ikusirik, itaundu eutsan.

Txeru, begian zer jazo jatzu ba?

Areñegun arritxu bat sartu jatan, eta Osagile-Begilariagandik nator.

Eta, zer? barriro Koldok itaundu.

Ogei bat egun barru ezelako eragozpen gabe kaletik ibilteko gai izango nazala esan daust, Txeruk erantzun eutsan.

Arik ilebete ingurura barriro adiskide biak kalean topo egin eben, eta Koldok bere laguna begiko estalki gabe ikusirik, diñotso, dirautso.

Ta, Osagilea zuzen egoan?

Bai benetan, arekiko zorra garbitzeko nire kotxea saldu bear izan dot, eta orain kaletik inezibilteko gai naz, polito nabil.

URRUTIZKIÑEZ - TELEFONOZ

Bein baten gizon bat telefonotik deitzen dau, esanez.

Zu, mezedez zoroetxeaz berbetan nago?

Oker zagoz memelo ori, guk ez daukagu telefonorik, urrutizkiñik.

ORDULARI

Antton-guzur alperra pare-gabea da, baiña alperra dan aifian azkar eta buru argikoa be bai. Anttonek lanean izuritzen dauan izerdiaz soifean daroan alkondara adabuz betekoa ez da errez ezotzea. Baiña Anttonek naizta lanik ez egin, bere arlotekerietarako dirua lortzen dau.

Orain egun batzuk edantegirik edantegi ibili ondoren bere etxera joiala, erriko eleizako dorreko ordulariak ordu-biak jotzen dauz. Ordua biak entzutean, Anttonek diño.

Arraio, arraioa! Ordulari ori ez dabil ondo. Ordu batak birritan, bi bider jo dauz.

Antton-guzur ordulari ona egoan.

ONTZI-GALTZAILEA

Itxas-gizon bat bere ontzia ekaitz ikaragarri baten ondorioz ondatua izan zana, itxas zabalera izaro txikitxu batera iger, uger, egiñez eldu zan.

Izarotxuan bakardaderik, aspergarririk itzalean an egoan gure gizona ordu luzeetan begira bere gaizkatzale bat noiz agertuko zan. Noiz ikusiko eban bere gazkatzalea.

Alako baten, ara non, zer ikusten eben bere begiak sifñistu eziñik, gazte-larrez "buceador" deritxon notin bat agertu jakon. Notifia here txapela, betaurrekoak eta aize-ontziakaz ondo ornidurik. zan. Baiña gure gizonaren, gizon gaztea zan, arritasuna aunditu zan, bere aurrez aurrez egoana neskati gaztea ta ganera eragarkarri, itxura oneko polita zala ikusirik.

Alkar agurtu ondoren, neskati gazte ta politik esan eutsan.

Zugaitik egin neike ezer? zerbait?

Bai zelan ez, gizon gazteak erantzun eutsan, urte bete bat baiño geiago da kotel bat edan ez dodala, baiña zur orretzaz ezingo dozu ezer egin.

Neskatiillatxuak iribarre maltzur bat egiñez, bere zakeletik bonbila bat atera ta emon eutsan esanez.

Edan al dozu guztia, bonbilakoa amaitu arte.

Mutilak, zurrutada eder batzuk bonbilatik egin ebazan gozoro gozoro, bere soin, gorputza ederto beroturik, neskatilatxuari esan eutsan.

Mila esker neskatila gaizkatzalea, mila esker.

Ez da zergaitik, zerbait geiago nai dozu? neskatilak jarraitu eban.

Txokor eder bat erretearren ez dakit zer emongo neukan. Emen, izaro onetan errekiñuk ez zurik be ez neukan eta.

Neskatilatxuak beste zakel bat iri, idegi, ta txokor eder bat biztuta opa eutsan.

Mutila, jazokisun ain itzalak ikusita, amesetan egoala uste eban.

Ezer geiago, barriro neskatilatxuak esan eutsan.

Ez, mila esker, bonbilatik zurrutada gozo ta luze bat egiñez eta bere aotik, abotik, keezko edoi batek urteten ebala, esan eutsan.

Esan nai, gura dozu diñotso neskatileak, urte bete izaro onetan bakar-bakarrik egonda, orain nigaz jolasturik atsegin apur bat izatea, ez dozula, nai, gura?

Au entzutean mutilaren begiak aunditu ta argitu ziran, atsegin-tokian egoala uste eban, eta diñotso.

Miragarria da, golf jokorako tresnak be ba dakaruzuala ez daustazu esango?

EPAITEGIAN

Lapur txikitxu bat, bai, txikia zan, ez gorputzez baiña bai bere egitez, lapurketa oso txikiak egiten ebazan. Bein baten jazki bat lapurtu ebala ta epaitegira joan bear izan eban.

Lapurrak epailearen aurrean autortu eban, zelan lau bider denda batera sartu zala ta jantzi bat lapurtu ebala, ostu ebala.

Baiña jazki denda orretara lau bider sartu ziñala jantzi bat lapurtzeko, diraustazu, epaileak itaundu eutsan.

Bai jauna, salatuak diñotso.

Andrazko jantzi bat, Jauna.

Eta jantzi bat lapurtzeko, ostuteko, lau bider dendara sartu ziñan?

Bai jauna, baiña leenago iruretan lapurtu naban jantzia nire andreari jantziaren margoa ez jakon izan atsegin, ez zan bere guztokoa.

ERREGENAK

Oraingo au ez da barreerazle idatzia, baiña bai oso garrantzitsua. Gure izkuntsa, euskera-ren buruz dogun arazoagaz zer ikusi berezia, nabarmena dauan ezkeron nasai ausnartu bearrezkoa.

Gabon jai ingurua zan. Goikomendi basetxean bertako biztanleak barriketa gozoan aurkitzen ziran. Andra gizonak euren seme alaba Miren, Edurne ta Josebagaz afaldu ondoren alkar izketan ziran. Gaba aretan jakiña da, euren izketa gaia, euren seme-alabei erregeak zer ekarriko eutsoen zan. Neska-mutilak jostailu ugari eskatzen ebezan, gurari sakela amai bakoa da ta.

Alako baten Erramunek, au da aitaren izena, alkar-izketa eten eban esanez, txikitxuok, erregei zelan eskatu dautozuez opariak ba, zelan idatzita, euskeraz ala erderaz?

Neskatilatxu biak eurak erderaz idatzi, eskaria egin ebela iñoen, ba da erregeak izanik euskeraz ezin leikeela jakin. Mutilak ostera berak euskera idatzi ebala bere eskaria, eskakisuna, bera euskalduna dalako, jarraian iñoala.

Aita, erregak euskeraz ez dakie ala?

Biramon goiz-aldean, egun sentiaz batera, Goikomendi basetxean barre algarak eta negarrak naastuta ziran. Mutilak bere eskakisuna jarri eban lekuan bere eskaria bete beteta aurkitu eban, eta alboan orri bat onelan idatzita.

Etxe onetako mutil euskaldunarentzat, olan ederto, bakoitzak bere elez eskariak egin bear dauz. Agur mutikotxu datorren urterarte.

Neskatilatxuek ostera, ezer be ez, opari, bezuza gabe geratu zian. Areik egin ebezan negarrak, baiña Erramun, aitak, alaitu, postu naian esan eutsen.

Eskatu dozezan gauzak, jostailuak, neuk opako dautsuedaz, baiña urrengorako kontuan izan eizue, ori jazo jatzue orria, eskaria, erderaz idatzita bialdu dozelako, ta erregeak zuen eskariak ez dabez onzat artu.

Ara, iñotsen aitak, erregeak erri batetik beste laterri batera doazanean, euren izkuntza aldatu egiten jake ta beste barri bat ikasi. Eurak dabiltzan erriko izkuntza ikasi ta erabilten dabe. Leengo gaban erreka Burgosko lurraldetatik Bizkaiko lurraldatara eldu ziranean, bat batean erdera, gaztelarra aiztu, ta euskera uts utsean soilki itz egiten dabe. Orrexegaitik gaztelarrezko orriak gure lurraldean balio bakoak dira.

Ori jakin ba gendu, aita, neskatilatxuak, orain apur bat nasaiago, euskeraz idatziko genduan.

Ez negar geiago egin, ba da jostailuak eukiko dozeuz, baiña urrengorako ez aiztu, kontuan izan.

TRENEAN

Josune nire erriko ikastolako andereñoa da. Gaur goizean agurtu ondoren ara zer esan daustan.

Atzo ikastolako ikasleen izen abizen, adina, egoitza ta abar, euren txartela betetzeko nebiltzan eta Koldotxu, Errufiñan seme gazteenak ara zelako erantzuna emon eustan.

Koldotxu, zure izen abizenak eta egoitza ba dakidaz, baiña zure adiñatzaz ziurtasunik ez dodan lez, zergaitik ez daustazu esaten zenbat urte dozuzan?

Ara andrereño, bein baten nire amagaz trenean niñoala, txartelzaiñak zenbat urte dodazan esan eustan, nik bereala esan neutsan nire urteak, eta nire amak sekulako matrailekoa emon eustan.

ABERE GARAZLEA

Tximintxako Ander abere saltsailea da ta asto batzuk daukaz salgai. Anderrek bere erritik abere erosten eta beste zeregin batzuek dirala ta, aldendu bear izaten dau, ta areñegun orixe jazo jakon.

Areñegun asto erosle bat bere etxean agertu zan, eta gabeen bere gizona etxeratu zanean, barri au, albiste au, bere andreaz jakinazo eutsan esanez.

Ander, gaur goizean Pruden okiñaren semea etorri da.

Zer nai eban ba? Anderrek eten eutsan izketa.

Asto bat erosi nai eban, eta etxean ez zengozala esan dautsat.

LASARTEKO ARIÑEKETA

Lasarteko lurraldetan urtero ariñeketa zaio bat, txapelketa bat izaten da. Txapelketa au oso ospetsua da, ludiko gazte trebeenak aurkeztzen dira, ta Aprikatarrak garaileak izaten dira. Baiña goazen arira.

Ospea au dala ta, ikusi-miñak eraginda, joan dan urtean Antzeguko Klaudio be Lasarte izan zan. Gizona ikusten ebanagaz, ariketa txapelketagaz naiko asperturik zan eta bere alboan egoan mutil gazte bateri itaundu eutsan.

Zer dala ta dabiltz jo ta ke mutil gazte oneik, izerditan ain adoretsu?

Kopa bategaitik, mutilak erantzun.

Aaa! ...kaiku ganorabakoak, Klaudiok esan eban, dagon eguraldiaz kopa bategaitik ainbeste ariñeketa? Nik pitxar bat bete baiño gitxiagaitik ez dot zirkiñik egiten.

SURRUTADA LARREGI

Azpalditxuan Koxepa kezkatu, urduri dabil. Bere gizonak Anbrosiok, ile batzuk dirala surrutada larregi egiten dauazala ta Koxepa ardutatsu dabil.

Baiña Koxepa arazoak zuzendu naian erabagiak be bereala artzen dauz. Oraingoan be, bere gizonaren gríña txarra baztertzeko naian Osagileagana joatea erabagi dau. Erabagiak artu ta bereala betetu. Osagilearen etxean aurkezturik, diñotso.

Osagile jauna, nire gizon Anbrosiori edateko gríña dauan ori kendu, baztertu dagian, zer egin neike? Zer egin daiket?

Errez, erreza dozu ori andrea, Osagileak erantzun eutsan. Ara, bete eizu untzi bat, edontzi bat, urez eta osaki onetatik iru edo lau tantal izuri eizuz, egunero bi bider emon bear dautsozu, baiña aitzu barik. Egon zaitetz ziur, gríña, aje maltzur ori zure gizonak ile bete baiño leenago baztertuko dau.

Baiña jauna, dirautso Koxepak, nire gizonari nok artu-azoko dautso ura? Nok ura edan azoko, dautsa?

LELOKERI AUNDIAGOA

Bein baten andra-gizon talde bat edantegian alkar-izketa saratatsuak jardunean ziran. Danak ez ziran alkar ezagunak baiña arazo au eragozpena ez zan saratatsu izateko. Egia esan batzar aretan ukondoa, batzarkideak ukondoa larregi jasoten ebela.

Alako baten nire auzokide dan Lorentzok bere alboan egoan beste batzarkide bateri itaundu eutsan.

Zu adiskide, ain saratatsu dabilen andra kirru, jantzi margodun a, nor da? Ezagutzen dozu?

Bai ondo ezagutzen dot, neure andrea da, erantzun eutsan.

Lotzez beterik Lorentzok diñotso, parkatu lolokeri nabarmen bat izan dot. Gorri gorri bere aurpegia biurturik, Lorentzo, parkamena eskatu eutsan.

Orregaitik ez zaitetz larritu adiskide, beragaz ezkondu nitzanean uts nabarmenagoa izan neban, lagunak erantzun eutsan.

GIZON ZINTZO LERROA

Beiñola Kepa Deunak aingeru bateri bere gelara deiturik diñotso.

Ara, nire aingeru maitea, ludira jaitsi bear dozu ta atzipen edo iruzur egiten daberen giza-kiakaz zerrenda bat egin bear dozu.

Aingerua ludira jaitsi zan bai, baiña iru bat ile bete geroago guztiz nekatuta ia egaz be egin eziñik zeruratuta bere gorputza Kepa Deunaren gelan aulki baten jausten itxirik esan eutsan.

Nagusi Jauna, ezin zeinke gogoratu emon daustazun lanaren aunditasunaz. Lurbirako bazterrak arakatzen ibilli bear izanik ez dot izan Jauna. Lan au batentzat larregi da, laguntzaile bat bear dot.

Eziña da Kepa Deunak esan eutsan, azpaldion langilekaz txarto nabil, lan ori zeuk bakar-bakarrak egin bearko dozu, jaitsi zaitetz barriro ludira.

Aingerua Kepa Deunaren agindua betetzera joian, jezarlekutik nekez jagi zan eta aterantz abiaturik, asmakisun berezi bat izan eban, eta Kepa Deunari diñotso.

Kepa Jauna, zerrenda ori ludiko gizaseme zintzo, zuzenakaz, uts utsean egiten ba dot? Oso laburragoa izango da ta aste bete barruan amaituko dot.

Aingeruak Kepa Deunaren baimena izan eban, eta lurbirara jaitsirik, berak asmau eban bezela, lez, egin eban zerrenda, aginduko zerrenda. Aingerua besopean zerrenda eroala, arik aste bete baiño leenago zeruratu zan.

Aingeruak emon eutsan zerrenda ondo be ondo begiztatu ondoren Kepa Deunak, zerrendaren aldaki batzuk atera, egin, eta eleiz guztietako Nagusiei bialtzeko, aldakiak bialtzeko agindu eban. Ondoren eleizetako parrokoek zerrenda orretan agertzen ziran eleizatarrei euren gizabide onagaitik zorionak emonez, eskutitz bat bialdu bear eban.

Jazoki oneik azaltzen ebezan gizonak bere adiskideari itaundu eutsan.

Gutun, eskutitzak, zer ipinten eban ba dakizu?

Ez, adiskideak erantzun eutsan. Zer ipinten eban ba?

Aaa! zuk be ez zenduan gutuna artu, ez?

BASERRITARRA TA IDAZKARIA

Beiñola Andikoetxe basetxera Errufiño etxagunegana erriko idazkaria ertzain lagun ebazala bere ondasunak, Errufiño ondasunak, baitzera joan zan.

Errufiño ikusketa au ez eban artu bat be ondo, ikusketa bere guztokoa ez zan izan, eta sekulako irain, itz zikin aldizkariaren aurka baserritarraren abotik urten eben.

Orduan idazkariak salakuntza bat egitea erabagi eban, eta onelan idatzitakoa amaitzen zala, "Dalako baserritarrak bere etxeokaz lagun zala, ekintzaz eta itzez txarto be txarto, gaizki, erabilli ginduzan, guri eraile, dangeak, doilorrak eta lapurrak dirala esanez,... Eta au egia dala baiztatzen dot".

ON JAUN BAT

Joxemari nire auzuneko mutil-zaarra berrogei urte dauz, oso itxura oneko, mutil jaseko, lagunkoia da baiña baita be eretxia, neskati gazte polit danak beragan begiak, euren begiak ebezala, uste ebana.

Egun baten uriko ugeritegira, kiroltegira, uger, iger egiteko naian joan zan. Toki beratan neskati-andra aldra baten, nire auzokidearen gurari bardifiegaz joanda, andrazko eder, polit

oso erakargarria, jazki ariñakaz apaindurik, bikini margodun polit ta estugarrian ingurutaturik ondiño polit ederragoa eritxona, egoan.

Gure zigortzaleak, gaztelarrez “castigador”, bere oiturazko jokaera ez eban agertzen, bere jokaeran salbuespen nabarmena, neskatil polit aregana urreratzen ez zan ausartzen, an ebillen gora bera alkar-izketa zelan asiera emon. Azkenean andrazko eder aregana urreraturik, esan eutsan.

Ni Joxe Mari Uriolabeitia naz, Zure etxean zuri zelan deitzen dautsue?
Ama, andrazkoak erantzun eutsan.

ERRUA ZEUREA

Txango betetik itzultzean, Txantonek bere andra Pelipari esan eutsan. Ezkontz-eraztuna galdu dot eta sentitzen, bene-benetan sentitzen dot.

Baiña gizona, zelan galdu dozu ba? bere andreak itaundu dautso.

Milaka bider esan dautsut, amaika bider esan dautsut, nire praketako sakelak zulotuta egozala.

UMEAREN IKUSPEGIA

Ara ikastetxe baten zer jazo zan. Bertako irakasle bat Kristau-bideko ikas-aldian, Samaritar Onaren alegiari buruz marrazki bat egien, eskatu eutsen. Arik asti labur batera, zazpi urtedun umetxuari apur bat atzeratuta joiala, marrazki egiten apur bat atzeratuta, uste izanik, diñotso.

Atzeratuta zoaz. Ondiño ostatua baiño ez dozu marrazkitu.

Bereala umetxuak erantzun eutsan.

Nire lana, nire marrazkia amaituta da.

Baiña zelan, Samaritar Ona zauritutako gizona eta ostalaria marrazki orretan, zure marrazkian, ez dira agertzen.

Ba dakit, erazunten dau umetxuak, orreik ostatu barnean itxi, utxi, dodaz.

ZUGAITZ OSPETSUAK

Oraingo au ez da barre erazlea, baiña irakurle guztako jatzula uste dot, jarraian irakurriko dozuna jakitea zure guztoko izango dala uste.

Ba zenkian, ludiko zugaitzik zaarrena Kaliforniako “Matsusalen” izeneko piñu bat dala? 4.700 urte ei dauz, egozten jakoz.

Eta ludiko zugaitzik aundiena, “Sherman Generala” esaten dautsoen sukoa dala? 6.100 kiloko ei da. 740 elefanteena da.

Zorionik ez dau ezagutuko, bera baiño zoriontsuagoari bekaitza dautsonak. Seneka.

EMEN BE LANA?

Arlote, nire albo-erriko ganorabako bat da, gabean berandu, belu, txonlinduta edantegi baten aurkitzen da.

Edantegi nagusia, jabea, andazko bat da, ta Arlote bere berbetan eta egikizunetan be naiko baiño geiago aspergarri egoan. Bere jokaera bertako bezero batzuk nekazariz jasan ezifiekoa izanik, edantegiko nagusiak kalera joateko agindu eutsan eta barriro gaba aretan ez eitela itzuli, edantegi aretara ez eitela itzuli eskatu eutsan.

Arlotek andrearen agindua bete eban, men egifnik ixil ixillik kalerantz joan zan, baiña arik ordu bi ingurura, albo alboka edantegi ber-berara sartu zan.

Edantegiko andreak barriro, ta ondiño leenago baiño bere sakela beteagoaz etorrela ta, guztiz asarre difnotso.

Barriro gaur gabean emen ez agertzeko ez dautsut agindu, ba?

Mozkortiak bere zutiktasuna zaindu gurarik, difnotso.

Baiña, emen be zuk lan egiten dozu?

ARRANTZALE ARTEAN

Eiztari ta arrantzaleak arro, guzurti, erronkari aomen dabe. Nik ez dakit aomen au zuzena danik, dan danak, iztari ta arrantzale guztiak olakoak ez dira izango, uste dot nik, salbuespen anbat euren artean izango da.

Baiña goazen arira ta irakurri eizue, Txiru arrantzaleak zer edestu eustan.

Batzar, arrantzale batzar bat amaitu ondoren, areto aundi baten txola bat artu ta errekin erreteko asmuz sartuta gengoza, Iñaki arrantzaletariko bat, batzarkidea beste arrantzale aldra baten apur bat gugandik urrunki, bere taldekidei zerbait azaltzen ziardun.

Inakik bere atzamarrakaz bitarte, luzera, adierazoten ebala ikusirik, amabost zentimetro ingurukoa ta ez arrantzaleen artean oitura dan lez, besoak zabalik, nire adiskidei esan neutsen.

Bere arrantzako eginkisunak edestea Iñakiri aitzu jako, antza. Atzamarrakaz bitarte laburra agertu dau.

Bai zera, adiskidetariko batek erantzun. Jokatuko neuke, iñostan bareka, atzamarrakaz adierazo dauan luzera arraiñeari dagokiona ez dala. Arraiñearen begien bitarte adierazoten dauana izango da.

BABESA

Josebak, mutiko azkar, buru argikoa da. Ara zelako itauna bere aitari egin eutsan.

Aita, zergaitik legeak zelan ez dau zilegitzen andra bat baiño geiago eukitea?

Legeak babesten ez dakiena babesten daualako, beti babesten daualako, aita erantzun.

EMAKUME BATEN LARRITASUNA

Jarraian irakurri al izango dozuna ez da barre-erazle, txisterik, kondaira da, jazorikoa. Aintzindari berezia Bilboko idazle, gazetari ospetsu bat da.

Aintzindari au bere sendiak Mundakako itxasalde politan uda aldia emoten eban eta bere aide arteko ezkontza batera, Begoñako Andra Mariaren eleiz nagusian izango zan eleizkisunera deitua izan zan. Larunbat goiz baten gure gizona bere andrea lagun ebala taxisen Mundakatik Bilborantz joiala Ereño inguruan bertako nekazari bat bere idi-buztarriaz arripidean topatu eben, Arripede estuan nekazaria egur batzuk zamatu al izateko bere idi-buztarriaz eratunakatu naian aurrera-atsera ebillen, taxiseri aurra joateko debekatuz. Antza danetik andra-gizonak

leiatu ziran, eleikisunerako ordua urbil egoan eta baserritarra, euskotar baserritarrak gei-entan ibiltzen diran lez oso nasai, trankil ebillen. Andrazko urduritasuna, bere urduritasuna baztertu ezinik bere gizonari bein eta barrero eta azkenean naiko garrats gizonari, bere gizonari, baserritarrak bere idiak baztertu dagizala esateko inotsan.

Olako baten nekazariak bere idi ta burdia leku egokian, berak egokion toki egokian, ezarri eban, eta taxisa Bilborantz abiatu zanean, idazki onen aintzindariak zer entzun eban ara emen.

Baserritarrak nasai-nasai ta astiro astiro esan eutsan.

Aaa gizajoa, neuk be bardin bardin bat daukat nire etxean.

TXOMIN BETERRE TA MUTIKOAK

Nire erritar Txomin, ezizenez Beterre deitua, azpaldion guztiz asarre dabil, bere ortura sagar-lapurretan erriko mutiko batzuk sartzen jakozalako.

Barrabanok, bildurtuko zaituet bai, Txomiñek bere baitan inoan, eta mutilak ortura sartzen ziran leku ber-beratatik dindilizka idatzi onegaz idatzita ezarri eban, "Ortu onetara sartzen dana ilgo da".

Arratsaldean ikastolatik urtenda mutilak barrero Txomin orturantz joan ziran eta asaotik ola dindilizka ikusirik eurentariko baten inoan.

Mutilak ikusten dozue? bere taldekidei esan eutsen. Zer ipiñi ete dau?

Batek ba daki, bear ba da azeriak arapatzeko tramankulu anbat. Bildurrez eleizperantz egin eban.

Amabotst egun inguruan bere ortuan Txomiñeri sagar-lapurretan ez jakon mutilik sartu, ta poz-pozik zan. Baiña alako baten, mutilak orma ganetik ortura sartuta, ilteko bildur barik sagar-lapurretan ebiltzan.

Txomiñek ikusi ebazan eta eurakana ariñeketan joan zan, orturik uxatu naian joan zan.

Zergaitik barrabanok bildurra galdu ete dabe? Txomiñek bere baitan inoan. Bereala orturik urten eban eta berak ezarritako ol zatien idaskisuna irakurri ebanean arrituta geratu zan, olan inoan.

Eta ortu onetara sartzen ez diranak be... ilgo dira.

BOTOIAK JOSTEA

Sarritan jazoten dan lez, larregitan, geigitan, gizon bi alkar-izketa mamintsuak ebiltzan. Egia da, edantegia zan eta tokia au otoiz egiteko lekua ez da, ez. Baritsu, beraldunen aomena andrazkoa dabe, baiña gizezkoa be euren miña erabilten ba dakie, baiña goazen arira.

Euratariko batek, besteari difiotso.

Zu Shanti, ezkondu ziñanetik ona guztiz apain jantzita ikusten zaitut, zure jazki, soiñekotan ale, botoi, baten utsik be ez dot ikusten. Ezkongai ziñanean beti botoi ale anbatan utsagak ebiltzan, baiña orain ez. Beti ondo orniduta ikusten zaitut.

Ara Mikel, asti apur bat artu ondoren, besteak erantzun eutsan. Nire andreak, Errufiñak, ezkondu giñanean leenen leenen ezarri eustan zeregina ta irakatzu eustana botoiak jostea izan zan.

Andrazkoa ez zan makala, beste zeregin batzuk be egiten irakatsiko eutso-zala uste dot.

“APENDICE” ZETARAKO DAN

Nire osaba Patxik Osagile ta Osaetxeak asao, urrunetik ikustea uts-utsean atsegin izaten jako. Gaixo gitxi, txiki, batagaitik Osagileagana joatea ez jako guztatzen. Baiña gaixotu zan, eta olako unetan bearrezkoa Osagileagana joatea izaten da. Naizta berak, nire osabeak, ez nai izan, gaztelarrez “apéndice” deritxon ebagitea egin bear eutsoen. Este-izun kendu bear eutsoen.

Nire osabeak zetarako este-izun ori kendu bear eutsoen ez eban ulertzen. Osagileaz ezta-baida zirala zer iñotsan. Osagile Jauna, nire este-izuna zergaitik kendu bear daustazu? Jaungoikoak ezarri eustanean bere zioak eukiko baezan.

Bai, olan da ta garrantzitsuak, Osagileak erantzun. Zure este-izuna Jaungoikoak ipiñi eutsun, nik nire zendia zaindu, jagon, nire seme-alaba azi ta ezi eta eurari ikasketak egiñez, bizibide on bat emon al izan daidan.

INDIATARRA

Orain edestuko dautsuedana Ameriketan jazo zan. Gurdi-bide batetik lurralde aretan “vaquero” deritxon bat joian, eta bere bidalian joiala, lurrean bere belarria jota eukala, indio bat aurkitu eban. Vaqueroak lagundu naian esan eutsan.

Zer jazoten jatzu, adiskide?

Indiatarrak aldizka olan erantzun eutsan.

Gurdia, Zaldi bi, bata zuria, bestea baltza. Gidari gizon bat... Pipaz erretzen dau... Andrea urdiñez jantzita... Burusik...

Baiña zuk zelan jakin zeinke gusti ori? Lurrean etzunda guzti ori zelan jakin daikezu?

Indioak jarraitu eban.

Ordu erdi bat da gurdiaz zapaldu ninduela.

ANDRA ZIÑEZKOA

Oraingo au, nire adiskide, auzokide ta ez nire arritarren artean be ez zan jazo. Urruneko erri txikitxuan, ama alabearen arteko alkar-izketa da.

Ama antziñako oiturak eta biziera ontzat artu eta zaindu egiten ebezan. Arlo onetan gaur egin diran aldakuntzakaz guztiz arduratua zan. Baiña... ori... zan... karroza bat.

Bere alaba zaarrena gizonetzko bateaz urteten ebalako guztiz kezkatu ebillen, mutila edo gizona ez eban ezagutzen, or egoan amaren kezka, ardura.

Egun baten bere alabeari esan etsan.

Alaba maitea, mutil ori zugana asmu onagaz datorrela, ziur zara?

Bai, ama maitea, alabeak erantzun. Gizon itun, zuzen eta ezkondua da.

ORMEA ALPERRIK

Patxo nire albo-erriko garazlea, Langile, argin, batzuk ortu-deunaren ormatariko bat erai-kitzen ziranean, bertatik, albotik, igaro zan. Astia zenbat nai eban ezkerro, Patxo argiñekana urraturik iñotsen.

Egun on adiskideak, nasai nasai dirautse, orma ori eraikiten alperrik zabilte.

Zergaitik? Iangileak erantzun.

Ara... or ortu-deunaren barnean dagozanak, kanpora ezin dabe urten, eta kanpoan, ordu deunaren kanpotik gagozanok barrura ez dogu joan nai, gura. Beraz alpar-alperrikoa da orma ori.

Nire elburu, nire naia, guraria, euskera bultzatu, edatzea dan ezkeru, idazki ziñezko, benazkoak, be baliotsuak izan leitekezala uste dot. Gizaki berbotsak arlo batzutan zifiezko, itunak be izan leitekez. Orregaitik, naastean ez, alkarregaz izan daitezán, nire eskuetara eldu diran bertso batzuk jarraian irakurri al izango dozuz.

Ez da euskera bezain izkuntza
maitagarririk munduan
Jakiña dago deabru zaarrak
zelan ikasi etzuan.
Aita Santua! Ezin mintzatu
dagiketa inpernuan
orregaitik danak euskeraz
abestuten dabe zeruan.

P.M. Otaño

Ez dago emen zurik ez baltzik,
ez dago politikarik
euskaldun danok euskera alde
egitea da bakarrik.
Ikasi dagigun erdera, prantzaz
nai ingelesten elia,
ikaste ori ontzat daukagu
baiña lenago geurea.

Entzun ba, nire anai maiteok
ta ondo sartu buruan
Gure izkuntza iltzen ba jaku
zertarako gara munduan?

Jon Basurko

Barre algara ta irribarre tartean, euskeraren buruz gomutatzea be, egoki ta bearrezkoa dogu. Orain txiste ta idazki barre erazleak edo erazo naia dabenakaz jarraitu dagigun.

AMAMA

Nire etxean, laugarren sorailuan bizi dan andra Pelipa kalafartzin, andere utsa da. Egia da, larogeta amar urtetik gora da, ta neskatil gazte baten itxura dau. Iloba biren amarma zan, baiña amama deitzea ez jakon guztatzen.

Iobatxu batetariko baten urtebetzea urreratzen joian, eta olako unetan jazoten dan lez, umetxuari zoriopena bezuza bat lagun ebalá bialtzeko bearrezkoa. Baiña zelan egin? zelan idatzita? bere kezka, buruauztea au zan ba. Bere buruari biraka ta biraka ebillen eta azkenean asmakisun, bere ustez, zoragarria izan eban.

Au da burutasuna izan dodana, bere baitan iñoan, eta arkatza ta ingi, orri bat artuta ara emen zer idatzi eban.

“Zure aitita ta beragaz bizi dan emakuagandik urtebetetze zoriontsu bat izan”.

ALDIKOZ

Josebak guztitariko saltzen diran denda baten jabe-barria da. Mutil gaztea berantzat eta bere sendientzat bizi-bide on bat gurean garazle sartu da. Gitxitatik, utsetik asita gora igotea ez da bat be erreza, arazo gogorrak gaiñeratu bear izaten dira, eta olako zerbait Josebari be jazoten jako.

Josebak bere buruan asmakisun ugari agertzen dira, baiña bere arazorik bereziena zuzentzeko urten-bide bakarra ikusten dau, nabariten dau. Dirua eta ainbat lasterren bear dau. Baiña nondik, zelan lortu? Bere etxeko ta aide artean dirudunik ez da ta. Azkenean bere adiskide Iñakigana diru eske joatea erabagi dau. Iñaki be garazlea da eta dirutsua, baiña... dirua emoten zalea, ez.

Iñaki, arazo nabarmen bat dot, eta bera zuzendu al izateko diru apur bat bear dot. Ogei milla ogerleko bear dodaz, arazo zuzentzenko ogei mila ogerleko bear dodaz. Urte barruan berari dagokion mozkinagaz ordaintzeko.

Arazoa aundia da bai, nik emongo neuskizuz baiña Bizkai Diruetxeaz tratu bat eginda daukat. Eurak ezin dabe saldu jaki ta olako ezelako elikagarririk, nik ostera ezin dot dirurik aldi-koz iñori emon.

IZENPE BI

Uri aundi baten, egunero eskeko bat diru-etxe ate aurrean bere egin bearra betetzen, au da dirua eskatu, amoin bat eskatu, jarrita egoan, eta egia esan gizon oneri bere bizia ez joakon bat be gaizki, diru polita eskuratzen eban.

Berak, eskekoak, aurpegi goibel, apaltasunez eta gose itxauraz lelo au erabillen, “Jaungoikoagaitik amoin bat mezedez”.

Diru-etxeko nagusiagandik iñoiz txakur-txiki bat ez eban lortu. Diru-etxeko zuzendaria, eskekoa, ori bai, aditasunez agurtu ondoren, etxe aundi aretan barneratzen zan.

Baiña egun baten, ez dakigu zergaitik, eskekoak bere eske-leloa aldatu eban, barri onegaz ordezkaturik, Jaungoiko Aita ta bere Semeagaitik, amoin bat mezedez”.

Beti bezela, egunero lez, diru-etxeko nagusia zeatz orduan bere lanera etorren, eskekoa agurtu eban, eta onek bere eske-lelo barria oikatu eban, “Jaungoiko Aita ta bere Semeagaitik, amoin bat mezedez”. Au entzutean, bat batean zaldunak bere eskua zakelera sarturik, dirua atera ta eskekoari emonez esan eutsan.

Orain bai, orain bai, izenpe bigaz, orain bai.

Izenpe bi barik diru-etxean, irakurle gogoan izan, ez dabe emoten dirurik.

PETRONILAREN OILOA

Nok ez daki zer dan oilo bat. Zuek guztiok, danok, dakizue zer dan oiloa.

Amaiatxu oilo itzar janekoak izango zarie. Baiña Petronilaren oiloa, beste oilo batzuen antzekoa ez zan. Bere ugazaba-andreak zenbat laztankeri egunero egiten eutsozan ba, batez be goizeko bedaratzik inguruan.

Esango dautsuet zergaitik? Petronilarentzat bere oilotxua ain maitekiro jagon, zaintzea, guztiz garrantzitsua zan. Egunero-egunero, utstxu bat egin barik, arrautz gorri biribil bat ez eutsan jarriten ba? Arrautz bategaitik ainbeste koplak esango daustazue, baiña Petronilaren narrua zuek jantzitea nai neuke nik. Orduan esango zeuzkide koplak diran ala ez. Eskerrak oiloak opatzen eutsazan arrautz biribil arei, osterantzean ez dakit Petronilak bizirik zelan urten-go eban. Bere ortutxuko porru beratzakaz urdaila atsipetzea be eziña zan lortzea.

Baiña egun baten Petronilak asmakisun nabarmena izan eban. Petronilak bere baitan iñoan, arrautz bat egunero oilo ain azkar eta ondo elikatu batentzat oso gutxi zala, arrautz bat ipintea gitxi zala. Petronila asmakisun, burutasun zelakoak ba ebazan bere baitan. Niri, onenetan be, oiloari agirekada batzuk egitea ta arrautz bat geiago ipinten saiatu daitela, buruak emongo eustan.

Oilotxu oneri, Petronila bere kolkoaz asi zan berbetan, egunero baten emoten dautsat jaten, gaurtik aurrera birritan emongo dautsat, eta berak, oiloak, arrautz bi egunero ipiñiko daustaz. Asmakisun oso zuzena, Petronilaren ustez.

Petronilak gau aretan lorik be ez eben egin, bestaldeko oilarrak egun-sentian kukurruko jo ebaneko, an ikusi zeinkeen Petronila bere oilotxuarentzat amantalean artagarria eroala astrapaladaka oilotokirantz joiala. Bere oilo maiteak egazkada bizian bidera urten eban bere ugazabagaz topo egitera, eta zein pozago jarri eta zan, oiloa artagaro bere aurrean ikusirik, ala Petronila berre oiloaren gangarra ain gorri ikusirik? Oilotxu arek jaten emon barik be arrauts bigaitik ipiñi leikiozan. Baiña ba da ez bada jakia emon eutsan, onelan ederragoak, arrautz ederragoak, opako eutsazalakoan.

Oiloak artagaro jatea amaitu ebanean, Petronilak anketatik legunkiro oratu ta abian jarri, leenengo arrautzatxua noiz ipiñiko eutsan zain.

Petronila, arrautz bi areik, lortu bear ebazan arrautz biak, gogoan eroazala, pozik etxeratu zan. Sutean barneraturik, sua biztu ta "malte" antzekoa berotzen jarri, ta artzen asi orduko bere belarriak ze zoiñu edo zer entzun eben. Oilotxua ez eben ba kar-kar algaraka? Oilotokira abiatu, adi-adi bere begiak abian zer ikusiko... eta ba egoan bai, abian zer ikusi. Oilotxuak opa eutsan arrautzea eder zoragarri bat zan, ukubilelakoa. Oiloa besoetan artu ta mosuka jan eban.

Orain, iñotsan oiloari, atsedean apur bat artu bear dozu. Etxe aurrean astrakada batzuk egin eta euli ta kotxoakaz jolastu, arto-ore eta artagaro ugariagaz etorriko naiatzu. Petronila sukalderratu amantalean arrautz gorri ederra gordeta eroala.

Arik..., bost minutu ez zan igaroko, baiña Petronilari minutu orreik joandako urtea baiño be luzeago iruditu jakozan. Petronila larri, oiloak bigarren arrautzatxua opa egion, artagaro ta arto-ore beroaz jaten emotera joian.

Oiloak Petronilaren kurra-kurra itzak entzun ebazanean, egazkada baten bere ugazabaren aurrean izan zan. Ez ebazan jango ba bere andra-ugazabak ekartsozan artagarao ta arto-ore beroa? Bai pozik eta Petronila pozago, olako janariak eraginda egindako arrautzea ederragoa izango zalakoan. Oiloak bere biroa bete ebanean, Petronilak laztantasan audienagaz abiratu eban oiloa, bigarren arrautzea noiz ipiñiko eban zain.

Baiña luzaro itxaron arren, biotz min bat Petronilak iñoan ogera egun aretan eroan bear eban Oiloak bigarren arrautzarik ez eutsan opa.

Bai ba, nasaitu naian bere baitan, Petronilak . Oiloak nire usterik ez eban jakingo, eta, biar adierazoko dautsat nire guraria.

Biramonean be, naizta Petronilaren aotik oiloak mila erregu entzun bigarren arrautzea ez eutsan ipiñi ta bardin urrengo egun guztietan jazoten zan. Oiloak bere andra-ugazabaren agindua ez eban betetzen.

Gogo txarrekoa ete da ba oiloa? zirautsan Petronilak bere buruari, bere baitan iñoan. Ez, ez dot olakorik gogoratu be nai. Oiloak beti jokatu daust zintzo. Emen neu izango naz errudun, neu, itxaroten ez dakidalako. Bear ba da, oiloek bigarren arrautzea ipinteko asti luzeagoa bear-ko dabe. Oba izango dot nasaitasunez itxaron.

Onelan ile batzuk igaron ziran, Petronila oiloari birritan jaten emoten noiz edo noiz arrautze bi orreik eskuratzeko asmuz. Baiña irakurleok, igarri ete dozue itxaropen onen amaia? Oiloak ileetan be bigarren arrautzea Petronilari ez eutsan opatzen, eta azkenez leenengoa be ez.

Zertarako ipiñi gero? oiloak esaten eban. Petronnilak, ain ona izanik, ain ona dan lez, lanik egin barik be jaten emongo daust. Orain bizi, bizi egin bear dot.

Bizi bai, bizi. Petronila neskati on oiloaren asmo zitalak igarri eutsazanean jarri zan. Luzaro adiskidetasun osoz elikatu ta jagon, eta gero lotsabako bat mizketuten ibilli zarala jakin bear? Biozbako zantarrak olakoak, baiña merezitako zigorra izando dau, samea kenduko dau tsat eta gero lapikora.

Petronilak bere baitan olan iñoan. Beintzat onelan alperrik ez ebazan galdu izango ainbeste artagaro ore. San Juanak laster ziran lez, jai orretarako oiloa ilgo eban.

A zelako San Juanak Petronilak igaroko ebazan oiloari eskerrak. Arrautzarik ez baiña okelea ta saldea ugari ta guztiz gozoa. Aiztoa zorroztu, lumak gordetzeko zorroa gertatu, odolooartzeko ontzia garbitu... guztiz gertatzen gogotsu ebillen. Petronila San Juan aurrean pozik alai zan. Aiztoa bere eskuetan ebala oilotokirantz joaten ikusi ba zenduen, orduan jakin al zeinkeen, irakurleok, sorgin bat zer dan. Anbotoko menditik edo atzetatik urteneko sorgin bat irudian. A ze atseginez oiloari samea ebagi bear eutsan.

Oilotokiko atea idegi eban kurra-kurra deika oiloa egongo zala uste eban leku, tokiraño, joan zan, eta... Aitaren, Semearen eta Espiritu Sant... Baiña zer? Zer jazo jakon gure Petronilari? Ba zenkie. Oiloa ostu, lepurtu, eutsoen. Zer diñot ostu? Lapurtu baleutsoen, zelan edo alan lortuko eban barrero. Baiña ez, ez eutsoen ba, jan pizti anbatek? Antxe bere begien aurrean azur lumak ikusi ebazan. Agur arrautzok... eta oilo salda ta azpilkadea.

LAKUNTZAKO MANDAZAIÑA

Lakuntzako mandazaiña astero Iruñara birritan joaten zan. Zazpi mandok zaldi-gurdi bat arraiñez beterik euren indarrez eroela. Onetariko bidali baten iru ikasleaz, oneik be Iruñarantz joiazan, topatu zan. Mandazaiza ikusi ebenean ikasle deabrukeri bat otu jaken...

Ikasleatariko bi bide-bi ondoko sasi artean estalduko ziran, eta irugarren ikasleazgaz alkarizketan jardungo eban.

Asmau ta egin. Bikotea, ikasle bikotea, sasi moltso aundi baten atsean estaldu zan, eta irugarrenak mandazaiñari diñotso.

Egunon jauna, Iruñarantz? Arraiñeak, izan be, gaur sal-neurri egokia lortzen dau. Arrain garazle zarien mandazaiñak ederto bizi zarie, bai. Nai aiña dozuen irabasi, eskuratu, jateko arraiñik onena dozue ta edateko ardaorik garesti, onena.

Bai... eta ikasleek... sasirik sasi, asko jan eta gitxi ikasi.

Ori ori. Gitxi ikasi ta ezin ezer aurreratu. Zuk ostera, gero ta artu-emon aundiagoak.

Artu-emon aundiagoak... eta lan astunagoak.

Bai... ta bruxapeko katanarrua lodiagoa.

Ikasle onelan mandazaiñaren belarriak joatzen joian. Bitartean beste ikasle biak bururatu eban euren deabrukeri-lana.

Sasi ostetik urten, eta mando-lerroan ezarririk eurentariko batek mando bat lapurtu eban. Bigaren ikasleak ostutazko mandoaren kaprestu ta lepokoak soiflean jantzi, eta mando sailari lotu zan.

Alako baten mandazaiñak bere barua atserantz biurtu eban, eta gizon bat mando lerroan loturik ikusi ebanean, guztiz arrituta beragana urreratu ta esan eutsan.

Seme, nire mandoagaz zer egin dozu? Nora eroan dozu?

Neu naz zure mandoa, ikaslea-mandoak erantzun.

Eneee...Zu?

Bai ni. Orain lau urte, oben baltz ikaragarri bat izan neban, eta abadeak oben ordain bezela agindu eustan. Oraintxe lau urte bete dodaz, eta emen nozu barriro gizon biurturik, irakasleak iñotsan.

Arraio, arraioa. Bai, sorta larregi ta zaldale gitxiegi emon dautsut. Guzti onen, nire uts guzti onein, parkamena eskatzen dautsut, mandazainak esan eutsan.

Bai jauna, bai. Guztia parkaturik dozu, iñotsen ikasleak.

Beste barik, mando kaprestu ta beste, mando-bastea, itxita, ikasleak mandazaiña agurtu eban eta bereala aldendu.

Mandazaiña bere etxera eldu zanean, mando gitxiago bateaz etxeratu zanean bere andreak itaundu eutsan.

Ene ba da ta ni ... Zer ... mando eder a jokoan galdu dozu? esan bear dogu mandazaiña jokozalea zala.

Itxaron andrea, itxaron, ez larritu, nasai. Gaur jazoki arrigarri bat gertatu jat. Lau urte azken oneitan Iruñako gazte, mutil gazte bat, mando biurturik geure mando-lerroan erabilli dogu; ta Jexusa, au zan bere andrearen izena, ikasle gazteaz jazoriko guztia azaldu eutsan.

Au entzutean, bere gizonaren azalpenak entzutean, Jexusa arriturik, guztiz arrituta, bere gizonari diñotso. Parkame eskatu dautsazu?

Bai andrea, bai. Baita berak be gogo onez emon.

Bai, mandorako politegia zala amaika bider esan dautsut nik, andreak jarraitu eban.

Arik epe laburrean, mandazaiña mando bat erosteko asmuz joanda, alde batetik bestera ebillerara ara non, ilasle maltzurak ostutako mandoa non ikusten dauan. Beragana, mandoagana, urreraturik, mandoaren belarrietan bere espanak jarririk ixik-ixilik esan eutsan.

Zer? Orain be beste oben baltz izugarria egin dozu, ala?...

LURRAKO ATSEGIN-TOKIA

Antziña ez diñoen non eta zein aldian be, gizon aberats bat bizi ei zan. Egia esan gizon aberatsak betirik izan dira. Dirudun, aberats au gaztelu bere andra ta Atzel seme bakarragaz bizi zan. Kadish, au zan gizonaren izena, bere etxean aide urruna zan umezurtz Aksan izeneko neskatil polit bat, bizi zan.

Atzel mutil goi, ule ta begi baltzduna oso jaseko, Aksan neskatil polit begi urdin eta ule gorriska eukazan. Biak, neska-mutil bikotea, alkarregaz azi ta ezi, jan ikasi ta jolasten eben, eta bai etxeko ta erritarrak be alkarregaz ezkonduko zirala uste eben. Jazokisun orretarako sasoa eltzerakoan, alkarregaz ezkonduko zirala.

Baiña zoritxarra, edozein adin eta unean eltzen da ta, Atzel gaixotu zan. Bere gaixoa, gai-xotasuna ezezuna izanik, mutila geroago ta larriago egoan eta azkenean mutilak ilda egoala uste eban.

Burutasun au, bera ilda egoala, mutilak nondik edo zelan izan eban esango, itaunduko daustazue.

Ara, mutila, Atzel txikia zanean, atsegin-tokiari buruz ipuiñak edestuten eutsanan iñudea eban. Atso, iñaudeak, atsegin-tokian ikasketa ez lan egiterik ez zala bear, okelarik onena jan eta bakoitzak berak nai eban arte lo egiten ebala, eta ezelako egin-bearrik betetzea ez zala bearezkoa, edesten eutsan.

Atzel berez alper berezia zan. Goizetan jagiterik ez eban gura izaten eta ikasi gitxiago. Bere aita-amaren irabaspide ta ondasunak bereak izango zirala ba ekian.

Atsegin-tokira joan al izateko il bear dogunez, mutilak leen baileen iltea erabagi eban. Bere aita-amak guztiz arduratsu ziran eta bere andragaiak, Aksanek, negar eta negar, beste ezer ez eban egiten. Bere aideak, mutilak bera bizi zala, bizirik zala ikusi egian alegiñak egiten eban, baiña dana alperrik.

Mutilak, iltea nai eban. Zergaitik lurra ez daustazue emoten? Zuen errugaitik Atsegintokira ezin naz joan, iñotsen.

Mutila ikustera, arakatzera, Osagile bat baiño geiago urreratu zan, baiña guztia alperrik. Beste alde batetik, mutilak ez jan eta berba gitxi egiten eban, orregaitik bere etxeko ta aideak benetan ilgo zala uste eban.

Kadish, mutilaren aita, Yoetz eritxon Osagile ospetsu bategana, mutila ikusi egian eske joan zan.

Osagileak mutilaren aitari entzun ondoren, Dakisheri entzun ondoren, esan eutsan.

Mutila, zure semea zortzi egun barruan osatuko dot, baiña nik diñotsuedan guztia zeatz bete bearko dozue, naizta nire eretziak burugabekeri bezala zuekandik artuak izan.

Kadishek baietza emon ondoren, Osagilea, Yoetz jauna, mutila ikertzeraz gaztelura joan zan, ordurako Kadishek bere andra ta morroei, Osagilearen aginduak osoz bete bear zirala, berak Kadishek agindu.

Kadishek etxera Osagilea eldu zanean, egin eban baraugaitik argal-argal egoan mutil, Atzelen, logelara eroan eban, eta Yoetzek ain argal ikusirik bere aita-amari, mutilaren aita-amari, diñotse.

Zergaitik ilotz bat etxean daukazue? Zergaitik lurra ez dautsozue emon?

Berba oneik entzutean Atzelen aita-amak larri geratu ziran, eta bere seme gaixoak iñotzen.

Ikusten dozue? Neu nintzan egi osoan.

Naiz eta Kadish eta bere andrea Osagilearen berbak entzutean arrituta geratu, bereala Arte-ro Yoetzek esango itzak, aginduak, gogoraturik, ileta, elizkisunak egiteko guztia gertatzen asi uran.

Yoetzek agindu eban bezela, logela Atsegin-tokiaren antzera apaindurik. Ormak saten zuriagaz jantzi, leioak ixiki, ertsi, ta kandelak egunez eta gabaz argitzen eban. Morroiak zuri ta egoakaz jantzita, aingeruak bezala, ziran. Gau aretan, Atzelek guztiz pozik lo egin eban. Biramon goizean izartu zanean, logela ezezagun baten zala ikusirik, jakin naian, esan eban.

Non nago?

Atsegin-tokian, Jauna morroiak erantzun.

Gose naz. Okela ta ardao sakratua ekarri eidazu, Atzelak eskatu eban.

Morroiak txalo batzuk eginik, bereala beste morroi ta iñude batzuk agertu ziran. Morroi ta iñudeak lepoan egoak eukezan. Sabil, erratillu aundi baten okela, arrain, igali ta gozoki ugari ekarzan, eta morroi bizartsu batek edontsi bete ardao onenatarikoa emon eutsan. Atzelak guztia ederto jan eban eta lo ondiño lo obeto egin.

Eta nok ez, olan jan eta edanda?

Biramonean izartu zanean, gaba ala eguna zan ez ekian, guztiz ilun ilun egoan eta. Ondo-

ren jakia aurre-egunean lez emon eutsoen, ona baiña bardin bardiña. Eta mutilak itaundu eutsoen.

Emen, ogi, akeite eta esnerik ez daukazue, ala?

Ez jauna, emen beti bardin bardiña jaten da, morroitariko batek erantzun.

Gaba ala eguna da, irtaun barria egin eban.

Atsegin-tokian ez dago gaba ez egunik, morroiak erantzun.

Beste Deunak non dagoz? Atzelek itaundu.

Atsegin-tokian sendi bakoitzak bere leku, tokia, dauka, iñotsan morroiak. Eurak ikusten joan naiteke? Atzelek jarraitu eban.

Emen etxeak, egoitzak, euren artean urrunegi dagoz, morroiak erantzun.

Nire aita-amak noiz etorriko dira, eta baita be nire emaztegaia, Atzelek itaundu.

Zure aita ondiño ogei urte geiago biziko da, zure ama ogeita amar eta Akzan, zure emaztegaia berrogeta amar, morroiak dirautso.

Emen ain luzaro bakarrik egon bear dot? Aksanek zer egingo dau?

Bai jauna, bakar bakarrik egon bear dozu. Aksan orain zugandik banandua izanik itun goibel, dago, baiña laster mutil gazte bat ezagutuko dau ta beragaz ezkonduko da.

Atzel ogetik jagi ta logelan batera ta bestera ebillen. Zerbait egin nai eban, baiña eziña zan eta ganera ez ekian zer egin. Berak Aksan ikusi gura eban, berba, itz, bere lagunakaz egin...

Egun baten morroi bateri iñotsan.

Bizitza nik uste neban ain txarra ez dala ikusi dot.

Bizitza zaila, gaitxa da, ikasi, lan egin, irabaspideak egin bear dozuz. Emen bizitza erreza-goa da morroiak iñotsan

Egurra ebagi, lurra landu ta arraiñak arrapatu naiago dot, emen egon baiño gurago dot. Atzelek naigabez iñoan, jarraian esanez, noiz arte emen egongo naz Betiko?

Betirako? Naure burua il gura dot.

Ilak ezin Leikee burua il. Ilda dagoz, morroiak erantzun.

Arik zortzi bat egunera, morroi bat, ondo ikasia bera, Atzelegana urreraturik esan eutsan. Jauna, uts nabarmen bat dago emen. Zu ez zara il. Emendik aldendu bear dozu.

Bizirik nagola diñostazu? Atzelek esan eutsan.

Eta neuk hurreratuko zaitut, morroiak erantzun.

Atzel pozaren pozez, atserantz abiatu zan, baiña morroiak, nagusiaren agindua zala esanez, begiak estaldu eutsazan. Morroiak Atzel bere etxean gora ta bera mutila ibilli eban luzaro ta azkenean bere aita-amak, sendia egoan gela beratan, begietako zapia kendu eutsan.

Atzelak bere aita ta ama agurtu, berosatunik auandienagaz mosukatu ebazan ta ordoren Aksari itaun eutsan Ondiño maite nozu?

Bai, maite zaitut, eta-beti maiteko zaitut, Aksanek erantzun.

Arik asti laburrera ezkondu ziran, bikotea ezkondu zan, eta Yoetz Osagilearen omenezko bazkari oparotsua izan zan. Urruneko urrietatik adiskideak ezkon-barriei opari ugari ekarri eutsoezan, eta jaia zazpi egun eta zazpi gaba iraun eban.

Atzel eta Aksan eskondu ta pozik bizi ziran. Atzel bere lurralde inguruko garazle berezietariko bat izan zan. Ezkondu ondoren arte Atzelek Yoetz Osagileak osatu ebanik ez eban jakin, ez da be guzurrezko atsegin-tokian bizi izan zala.

Sarritan andra-gizonak, Atzel eta Aksakek euren seme-alabei ta euren ilobei Atzeleri jazorikoa edestuten eutsoen, eta beti lez euren kondaira itz, berba, oneikaz amaitzen eban.

Jakiña dan lez, iñork ezin leike esan zelakoa dan Atsegin-tokia.

UME GALDUA

Julentxu sei urte inguruko uma koskor bat da. Buru argikoa, beintzat bere aita amak Jaxinto ta Patxikek olan bein eta barrero iñoen, esaten eben. Ikastolan be leenengotarikoa da. Jokiera ain zintzoagaitik bere aita-amak saritu gura dabe. Praka batzuk eta ozki barriak mutilak bear dauazalata, Bilbora bere amagaz joatea sari ori izango da.

Egun baten bazkaldu ondoren ama-semeak erriko geltokian trenara sartu ziran eta joiazan, batez be mutila, guztiz alai uri nagusirantz, Bilborantz.

Mutila Julentxu, bere baserri maitetik lenengoz aldentze zan, eta Bilboko joan etorria, ango etxeak moltsotuta, erlanuntz bat dirudian uri aretan guztiz larri, arrituta egoan. Bere amaren gonak bere eskuaz estutuz, amari esaten eutsan.

Ama, ama, ni emen galdu egindo naz, nigandik ez zaitez ama aldentu unetxu bat be.

Eta zoritxarra. Mutila ez zan galdu ba. Kale ertz baten mutila alde batera ta bestera begira, bere ama noiz ikusiko, zer egin ez ekiala. Bertako, Bilboko, udal-zain bat konturaturik, jazokera onegaz konturaturik, mutilagana urreratu zan, eta zer jazoten jakon itaundu eutsan.

Mutilak udalzaiñaren itauna, galderea, eten eban bere larritasunean, iñoala, iñotsola, udalzaiñari iñotsola.

Jauna, uri onetako kaleetatik zear, umeak diñotso, ama bat nilako mutil, umetxu barik, ikusi dozu?

BERREUN OILO TA LORITO BAT

Niri ez jat guztatzen, baiña atserritarra dalako edo, txori au, txoribarritsu, lora, itxasgizonak euren etxeetara ta adiskideentzat, ekarten dabez.

Batxi irugarren solairuan bizi dana be itxas-gizona da, kapitana, ta egun baten itxas-bidalia ondoren etxeratu zanean lorito margo politadun bateaz agertu zan.

Batxin andra ta seme-alabak, bi ebazan neskati eta mutila, lenengo egunetan euren auzokide barriagaz pozik ziran. An ebiltzan goiz eta arrats loritori esaten.

Lorito, esan ekarri txokolate... esan Batxi... esan Aingeru, baiña txori ganorabako arek, niri egia esan, loritoa ez jat bat be guztatzen, izkuntzan aurrerakuntzik ez eban egiten. Jan eta lo, ori zan gure txoriaren ekinkisun guztia. Azkenean gure kapitanaren sendia guztiz azperturik, lorito aregaz ez ekian zer egin eta Maritxu egunero, goizaro, esne ta sarritan igali ta barazkia-kaz etorten zan neskatiari emotea erabagi eben.

Maritxuk txoria bere baserrira eroan eban, naiz eta baserrian beste txori batzun alboan eta etxe inguruko zugaitzetan kokatzen ziran txorien abestiakaz lora alaiago, pozago ta beraz berbalduago izango zala uste izan, gure txoria geroago ta goibel, mutuago aurkitzen zan. Maritxu ta bere sendia be txoriaz nagatuta, iguindurik ziran.

Baiña ara non, urte gabe aukera, txoriagandik aldatzeko, nabarmena agertu jaken. Basetxe aurrean kamion txiki bat gelditurik, bere gidariak oilorik salgai ba enen, Maritxun amari esan eutsan.

Oiloak ba daukaguz, baiña nire gizonak Erramunek saltzea nai ba dau, ez dakit ba. Orain-txe itaunduko dausat.

Erramun, bere gizonari deiturik, iñotsan, oilo erosle bat dogu emen. Oilorik saltzea gura dozu?

Orreik sei oilo zaarrok saldu zeinkioz. Baiña ondo ordaindurik izan bearko da. Sei oilokaz ori lorito ori be eroan dagiala.

Sei oilo baiño ez daukaguz saltzeko, baiña eurakaz emen ikusten dozun txori-berbaldun au be eroan bearoko dozu.

Ain zuzen be, berreun oiloaren daukadan eskakisun bat betetzeko, sei oilo bear dodaz eta lorito ori be, etxeko katuari jaten emoteko eroango dot.

Oilo garazleak agindu eutsan dirua egokia ikusirik, ordaindu ta bereala sei oiloak eta loritoa kamioira bota ebazan.

Gure kamioa berreun oilo ta loritoaz Bilborantz abiatu zan, baiña arik iru bat kilometrora neskati kirru oso eragankarri batek kamioa gelditu-azoteko kiñua egiten eban. Martzelinok, au zan kamioi gidariaren izena, atsegiñez gelditu eban eta bere alboan jezarrita neskati gazte, politagaz izketan asi zan. Matzelino izketatatik, lenengo leunkerietatik bere eskuaz neskati-laren matrail gorritzadun aurpegi polita losindu, leundi ikutuzera joan zan. Neskati-latxuak begi-rakada gogor, iguingarri bat egiñik, esan eutsan.

Baiña lotsagaldudun ori iñoiz lotsarik izan ba dozu, ze uste zenduan ba?

Onetarako gura izan dozu zure kamioira igotea?

Martzelinok bereala kamioa gelditu eban eta neskatileari iñotsan.

Ba siririk nai ez ba dozu, kamioitik bera, jaitsi zaitez.

Neskati-la errepidean geratu ta Martzelino bere oilo ta loritoakaz aurrera baiña Bilbora eldu baiño apur bat lenago zerga-batzezaileak Martzelinon kamioa gelditurik, beratan zer eroan, aldi aretako zerga ordaindu bearrezko zer eroan itaundurik, Martzelinok erantzun eutsan.

Berreun oilo ta lorito bat daroadaz jauna.

Zerga-baltzaileak kamioa begistatu eban, eta kamioan oilotokirik ez egoala ikusita, esan eutsan.

Zer? Niri adarra jo naian. Non daukazuz berreun oilo orreik?

Martzelino au entzutean arritu zan, eta bereala kamioitik jaitzita zerga-batzaileak iñotsa egia ba da baietzatzer joan zan. Bere naigabe, atsekabe aundiagotu zan kamioian oilo bakar bat ikustean. Loritok, txori-berbaldunak, okoilu baten zamatik oratuta oilo bakarra eukan, oiuka iñotsola:

Siririk egitea gura, nai, ez ba dozu, kamioitik kanpora!

LO KUKUTXUA

Larazo Errotatikiko etxaguna Igandero Meza nagusira joaten da. Basetxe errietan adifñeko notiñak Meza nagusira joatea oiturazkoa da. Eleizkisun aurretik eta amaitu ondoren, eleiz-pean zekulako erronka, aoberokeri izaten da.

Meza au apur bat luzatua izaten da, batez be nozean bein joaten diranentzat. Egun orretan abadea asi zan itzaldia egiten, itzaldiaren gala Lazaroren berbizkundera izanik. Abadea Eban-gelioa azaltzen gogor ebillen eta berbaldiaren une baten abots saratsu, biziaz iñoan.

Kristok egiten ebazan mirariak arrigarriak dira. Bein baten bere adiskide Lazaro, gaixorik zana ikusten joanda, atsekabe osoz ilda egoala ikusi eban.

Kristok biotz miñez zala gaixoari agindu eutsan.

Lazaro jagi zaitez!

Berba, itz, oneik abadeak indartsu egiñak ziran, eta Lazaro Errotatikiko bere lotatik atara eban. Lazaro ikaturik eta begi biak igortzen ebazala, iñoan.

Parkatu Jauna, lo-kukutxu bat izanda ta.

ARTE TA INGEA

Inge me-me ta luze baten lepo ganetik arte sendoak barre egiten dau, eta erruki antzera ingeari diñotso.

Zu zara makala, inge errukigarria. Zergaitik nire antzera beti zuzen eta tente, aizerik aundienagaz be burua makurtu barik? Begiratu eizu nigan, burua edoietariño jasoten dot, eta burua ezergaitik be ez dot makurtzen. Ekaitz gogorrenari be aurpegi emoten dauosat.

Izketa izanda arik une bat geroago, aize bolada ikaragarri batek zugaitz bikote au erazoten eban. Inge meak burua makurtu, apur bat makurtu soilki egiten eban bitartean, arte arroak lurra jo bear izan eban, aizearen indarrez lurreratuta geratu zan.

Gize-bizitzan be olakoak sarritan jazoten dira. Arroak eratsi ta ezereztuak diran bitartean, apalak errez errez igesi dau arriskuetaatik.

LEGE-ZAIÑA

Andoni nire lengusua izokin arapatzazalea da. Jai-egun geienetan arrantzarako tresnakaz ibaia joaten da.

Bere arrantza-zaletasuna bete naian, bein baten erbestera joatea erabagirik, izoki ugari zan ibai ospetsuan txalupadun gizon bat alogeratu eban.

Ibai-gora oso urrun, asao, aldendurik, asti luze orretan adiskide egin ziran, txalupaduna ta arrantzalea lagunak egin ziran.

Nire lengusuak arrantzan egiteko baimenik ez eukan eta olan adierazo eutsan bere languntzaileari. Onek bere arritasuna izkutu ia eskutu eziñik, nire lagunari bein eta barriro, uri-zaiñak arapatzen ba eban zelako zerga ezarriko eutsan iñotsan.

Ara, lenen lenen kenduko dabe, zure arrantza-tresnak be zure etxera gaur ez dozuz eroango eta orrez ganera eun mila lauerreleko ordaindu bearko dozuz.

Baiña nire lengusuak, txalupagidariaren esanak ez entzun egiñik, aurrera jarraitzeko agintzen eutsan. Azkenea txalupaduna geiago jazan eziñik esan eutsan.

Ara jauna, larregi da, ezin dot geiago jarraitu. Uri-zaiña, jauna, neu naz.

AUTEZKUNDEAK

Orain azalduko dautsuedana Ameriketako lurraldetan jazo zan. Ain zuzen ba, Ohio aldean. Aldi aretan uri aundi aretan autezkundeak ziran. Autezkunde aurrean alderdi politikoak bakoi-tzak bere alde edakunde gogorak egiten dabez, eta zeregegin orretan ebiltzan andra-gizon bikote bat, beste etxe askotan bezela ate baten deitu eben.

Bereala ate aurrean, atea idegita neskatil lirain, kirru, polit oso eragarkarri bat agertu zan. Neskatilea ulea kizkurtzeko tresnakaz uts-utsean, soilki, au da bilotz-bilosik agertu jaken. Ixil ixilk, agurtu be, larritasunez agurtu be egin barik, orri batzuk emon eutsoezan eta beste barik aldendu.

Kaletik zear joiazala gizonak bere lagun, andrako lagunari, eroen ixiltasuna etenda, esan eutsan.

Bai, egia da, andrazkoak esan eban, nire sasoiaren neskatil bat buruan olako tresnakaz jarrita atera, etxeko atera ez eban urtengo.

UMEAREN NEGARRA

Uriko kale ertz baten Andertxu negar baten da. Kale beratatik joian zaldun bat umetxuaren negarrak bere bioza bigundurik beragan, umetaxuagana urreratuta, diñotso.

Laztana, zegaitik egiten dozu negar? Zergaitik zagoz negarrez?

Mutikotxuak zotinka, sotinka erantzuten dautsa. Ogerlego bat galdu dodalako.

Arazo ori, zure arazoa, beingoan zuzenduko dogu. Ara, eutsiz beste ogerleko bat, eta ez geiago negarrik egin, bereala txanpona umetxuaren eskuan ezarririk.

Baiña mutikoak negarrez jarraitzen eban. Orduan gizonak, barriro diñotso.

Orain zergaitik egiten dozu negar ba? Zergaitik negarrez jarraitzen dozu?

Nire ogerlekoa galdu ez ba neban, orain ogerleko bi eukiko neukazalako, umetxuak erantzun.

SAGU TA LAKIOA

Nire bestaldedo andra-gizonak atzo iluntzean zalapastraka gogorrean ebiltzan.

Zuk, andreak esaten eutsan, gura dozuna esango dozu, baiña jakin eizu ni zure atsean ez nintzala ibili. Au argi ta garbi zure buru txiki horretan sartu eizu.

Gizona be ez zan geratu ixilik, ez, erantzun eutsan ondo be bere andreari. Lakioa be (Lazo para cazar) saguaren atsean ez da ibiltzen, baiña sarritan arrapau egiten dau.

ARRATOIAK

Uri aundiko kale ertz baten, antziñatik ikusten ez ziran arratoi bi topaturik, eta alkar arrera bikaiña ondoren, euratariko batek besteari diñotso.

Lodi-lodi ikusten zaitut, ain gizen egoteko zer egiten dozu? zelakoa da zure bizitza?

Itauna egin eban arratoia guztiz argal, me egoan, eta bere adiskidearen jokaera gura eban jakin.

Ara, ni kamioi aundi baten nabil, ara ta ona nabil geratu barik. Kamioi au urun zorro, gaztai ta beste jaki batzukaz zamatuta joaten da. Beste urietako dendatara jakiak eroaten dauz. Ni bitartean nire sakela ederto betentzen dot. Gura dozu etorri neugaz? Arratoi lodiak esan eutsan.

Bai, zelan ez, ia nik be bordalari gabe dodan nire urdail au jaki gozoz betetzen ba dot.

Arratoi biak kamion sartu, ta gaztai pillo baten artean oso pozik bete-bete egiten joan ziran. Arratoi biak biribil biribil, puztuta egozan. Baiña zorion utsa iñoiz ludi onetan ez da izaten eta, gure arraoei be jazo jaken ezbear bat. Kamioiari gupil bat zulotu jakon eta errepede baztarrean gelditu zan.

Kamioian gizon bi joiazan, gidaria ta bere laguntzailea. Gizon biak arazo zein zan ikusi ebenean, gidariak, kamioi-gidariak, bere laguntzaleari esan eutson.

Zu Mikel, atara eidazu katua.

Gure arratoiak katua, itz au entzun ebenean, katua ataratzeko entzun ebenean, an zan larritasuna, arifieketa, iges egitea, anka jotea. Arin euren ain gozoro joia zan egoitza itxi ta alboko basotxu batera joan ziran.

EZITZE ONA

Oraingo au be uri beratan jazo zan. Arratoiak ziran urian.

Gaur egun ezitze ona naiko bazterturik da, baiña ondiño, orain irakurriko dozuen lez, apur bat geratzen da.

Notintzat baterik joian autobus baten, au urietako eguneroko arazoa da, andra bat guztiz polit eta erakargarria, semetxua bere iztarratan, amaren izatarratan, iztarren ganean, jezarrita joian.

Aguretxu bat be autobus beratan zutunik aurkitzen zan, eta umetxuak ikusirik bere amari diñotso.

Ama, zaldun zaar orreri nire jezarlekua itxi bear dautsot?

EMAKUME BARDIN-BARDIÑA

Beñola, emakume bat, orain be andrazkoa, gizonak beti zagoze andrazkoakaitik zerbait berbaz eta euran barik ezin zarie bizi. Bai, emakumea zan eta zeozertxu erosteko naian, emekumeak beti dira zerbaiten utsean jantziteko ta, denda aundi baten sartu zan.

Andrazkoa gaztea, baiña urteetan sartzan joiana ta baita be okeletan, naiz eta berak, andreak ez ontzat artu. Agertoki guztietako jantzi, soifnekoei begiratzen bere guztoko anbat noiz aurkitu, ebillen eta ara non, beste andrazko bat bere irud ber-bera zana, bere gain bardin bardiñeko, bere ibilkera bardiña, bere ule, buru ta tankera bardin barkiñeko bat, non ikusten dauan. Bien artean ezbardintasun bat uts utsean, soilki, nabaritzen eban, bera baiño lodiago zan. Jarri ebazan betaurrekoak eta egiagaz konturatu zan... izpilu baten dizdiratuta... bere irudia zan.

EMAZTEA EZAGUTU

Aita, umetxu batek diñotso bere aitari. Ba dakizu irakasleak gaur goizean zer esan daukun? Afrika aldeko lurraldetan, uri batzuetan, senar-gaiak euren emazte-izango dana, ezkon aurreko agunerarte ez ei dabe ezagutzen. Gauza bakana ez?

Semetxu, aitak erantzun eutsan, Aprika aldetik ez eze olako gertaerak emen urbilago be eta aundiagoak be jazoten dira, andrea ezkondu ondoren luzaro be ez ezagutzea.

IXIL - IXILIK

Anttontxu nire adiskide Bernardon seme txikiena egun batzuk dira ikastolara lenengoz joan dala. Egia esan, au ez da arritzekoa, urtero milaka ume ikastolara euren ikasketak egiten lenengoz joaten dira.

Anttontxu, mutiko buru argiko oso azkarra da, beintzat bere aita-amak olan bein eta barriro baieztatu dauste, au be aita-amarentzat bere semetxua azkarra izatea ez da arritzekoa, baiña goazen arira. Antontxu ikastolatik iluntzean etxeratu danean ara bere aitari ze esan eutsan.

Aita, ez dakit irakurten, idazten ez dakit... eta ganera ikasgelan ixil-ixilik egon bear dot, berbatxu bat be berba, izt, egiten ez dauste itxiten.

OSPE ONA

Luziano ta Pantxike nire auzokideak dira. Orain amar urte alkar-eskondu ziranetik aurrez aurrez doguz etxeak.

Pantxike irakaslea da, baiña bere azke-aldietan, ikastarorik ez dauanean antzerkietan laguntzen ziardun. Bere antzerki zaletasunak sarritan Pantxike antzerki-soiñekoakaz bere etxetik urtetan beartzen eutsan. Antzerki-soiñekoak geienetan ezbardiñak izaten ziran.

Aurretizik esan bear dot, ni zaar-saridun bat nazala, eta astia ugari izaten dodan lez, auke-ra pare-gabea auzokoak eta geiago be ikusi al izateko.

Luzianon etxetik ain beste andrazko "ezbardiñak" urtetan ikusirik, arrituta nintzan, eta goiz argi, eguzkitsua urteteko, nire etxetik urteteko, atxakia zala, nire auzokide Luziano lorategia apintzen eban tokira geldiro geldiro urreratu nintzan, eta agurtu ondoren iñotsan.

Zu Luziano, zure etxera Pantxike konturatu barik, ain beste andrazko ezbardiñak, zelan arraio edo ze arraioaz baliatzen zara, sartu al izateko?

Irakurle, gizon zaartxu, zaar-zaridun zartxuari, ze erantzun esan eutsan, ez dakigu, baiña bai, bere andreak gabea, iluntzean etxeratu ziranean, itaundu eutsanean.

Gizontxu orreri, egia esan dautsazu?

Andreak entzun eban erantzuna ba dakizu, au izan zan.

Bai zera, Luzianok iñotsan, eta gero nire ospe, aomen, ona.

EZKONTZARA GELDIRO

Kerbasio ta Josebe, neska-mutil gazte, alaiak, eskontzea erabagi dabe. Bikoteak ain urdu-ri, leiatsu itxaroten eben eguna, olako baten eldu jake.

Goizean oso jaseko apaindurik Kerbasiok etxetik, bere etxetik urtenda, taxiseri deitu, ta or doa alai, irribarretxu, eleizarantz.

Kerbasiok bere apainketatan asti larregi izan ebalako, edo ez dakigu zer beste zio gaitik, apur bat berandu, belu, joian, ezkontzarako ezari eben ordua urbil zan, eta sasoirako ez zirala-ko eldukoan, ain astiro joian taxis-gidariari esan eutsan.

Apur bat arriñago, joan zaitez, arren, ba da ezkontzara noa, neure ezkontzara noa, ta egun ain garrantzitsu onetan berandu eltze ez neuke gura, nai.

Bai, ezkontzara zoi azala ba nekian, zure itxura, zure jazkeratik ezkontzara zoi azala ba nekian, eta ain zuzen be orrexegaitik, artu dozun erabagi ori aldatzeko asti luzeago izan daizun, noa ain astiro.

DENDAN NOR ARRAIO DAGO BA?

Judatarrak diru buruz, dirutzaz, aomen, ospe, negargarria dabe. Dana egia izango ba da, ez dakit, baiña gertaera, gizarte orren artean jazoriko barregarri ugari entzuten doguz. Ara emen orretariko bat.

Samuel bera andra ta Lavy semea ta Rebeka alabeaz, uri aundi baten, denda eder eta ospetsua bizi-bide lez dauala bizi zan.

Sendi osoak, andra-gizon eta seme-alaba biak denda orretan egiten eben lan. Judatar sendia au alai, pozik, ezelako larritasun, estutasun barik bizi zan. Osasun zein diru arazorik ez eben eta maitasunez lan egiñik, zoriotsu ziran.

Baiña ezbearrak, gaixo ta beste neke zorigaitz, edozein sasoi, unean eltzen dira ta, Samue-

len etxean be zoritxarrak dei egin eban. Obeto esanda, dei egin gabe Samuelen etxean barneratu zan. Samuel urteak eraginda oso makal, naigabetuta ogeratu zan, eta Osagile batek baiño geiagok ikusi ta ondo ikertu, ondoren onik etxeakoak beragan ez eben nabaritzen. Azkenean naiko txarto, Samuel berak be bere egunak zenbatuta zirala konturatzen zan. Ikusi be ez eban egiten baiña burua ta miña ondo ebazan. Olako argi une baten bere andreari deitu eutsan, esanez.

Zu nire andra maitea non zatoz?

Emen nago Samuel, zure ondoan, beti lez zuri lagundu naian emen naukazu, bere andreak iñotsan.

Eta zu Lavy, ene seme maitea, non zara?, Samuelek oiuegin eban.

Aita, ni be emen nozu aita, Lavy semeak iñotsan.

Rebeka alaba maitea, zu be emen zagoz? barrero Samuel itaundu eban.

Bai aitaxu laztana, zure zain emen naukazu, Rebekak erantzun.

Orduan, dendan nor arraio dago, ba? garrats Samuelek, gaixoak, esan eban.

EZIZENA

Bermion bertako biztanleak euren izenez baiño ezizenez ezagunagaok dira. Guzurrean jauzteko bildur barik biztanle guztiak, Bermioko biztanle danak, ezizenez deituak dirala. Ziri-lo Zabalaren idaski bikaiñetan, Bermiotarren milaka ezizen ikusi al izango dozuz. Politak batzuk, ezizen politikak batzuk, barregarriak beste batzuk, egokia, eta deztanezkoak be bai. Guztitarikoak. Eta ez erritarrei ezarrikoak uts-utsean, soilki, baita be erbestetatik Bemiora bizitzen etorri-barriak diranei be.

Bermiotarrak ezizenak ezartzeko erreztasun berezia dabe. Ikusi nik diñodana, egin dan ala ez.

On Joxe, jaun agurgarria, Bermiora diru-etxean lan egiteko bialdu eben. On Joxek Bermion adiskideak beingoan izan ebazan. Orretarako be, adiskidetasunerako be Bermiotarrak zintzoak dira. Gure gizona itxasaldeko erri polit aretatik, beste Bermiotar bat geiago balitz bezela, an ebillen, kaleetatik zear eta zelan ez, edantegirik edantegira, oitura au gure lurraldeetan guztiz edatua da ba, On Joxe Bermiotarren artean gozoro aurkitzen zan, baita erritarrak be beragaz jokaera adeitasun osokoa eben.

Bein bere adiskidetakoko batek, Ezizenak ezartzeko zaletasuna gogoan izanik, On Joxeri, naiz eta Bermion begiko zala, kontuz ibili eitela esan eutsan ba da On Joxe be ezizen gabe luzaro ez zala izango eta.

Eskertzen zaitut, adiskide, baiña nigaitik ez ardurarik izan, eta jarraitu esanez, (au gaztelarrez idatziko dot).

“Ya tomaré mis precauciones”

Arik, une orretatik eurrera On Joxe Bermion, Precauciones, deitua zan.

IZEN ONA

Beiñola, sua, ura ta izen ona alkarregaz bidali baten joiazan. Banandu ta alkar-galtzeko bildur ziran ezkeru, zelan alkar aurkituko eben otu jaken, zelan alkar ikusiko eben jakitea otu jaken.

Ara, suak esan eban, keak urtetan dauan toki guztietan ni aukituko nozue. Urak olan iñoan, toki zingirtsu guztietan izango nozue, eta biak batera Izenonari itaundu eutsoen.

Eta zu adiskide, non aurkitu al izango zaitugu?
Ni, Izen-onak erantzun, bein galdu ezker, betirako galdua naz, ez nau iñork aurkitu al izaten
Alan ba, ez iñoiz zure lagun-urkoa beztu.

ANDIK DANOK IGARO BEAR

Ara emen bein baten okerrezko telefonozko dei baten andrazko bateri zer jazo jakon.
Deitu eban telefonotik, baiña jarri eban eta zenbakia okerrezkoa izan arren ariaren beste aldetik egoan gizakiak alkar-izketa au izan eban.
Mezedez jauna, Atton Uriolabeitia or zugaz aurkitzen ba da esango daustazu?
Antton, erantzun eutsan, ondiño ez da eldu, baiña etorriko da.
Ze ordutan elduko dan, esango daustazu?, andrazkoak iñoan.
Ordua, ordua... ziur ziur ez naz, baiña elduko, etorriko da.
Ziurtasun oso dozu etorriko dala? andrazkoak barrero.
Bai, andrea, ziur naz, etorriko dala ziur naz. Etorriko dala ziurtasun oso dot, orretzaz ez dot zalantzarik.
Azkenean emekumeak diñotso,
Mezedez, nogaz nago berbetan esango daustazu?
Bai, Deriko Ilobitegiatz.
Jakiña, andik dano igaro bear.

AGUREA TA SENDORRA

Gizaseme asko dira eriotzari deika ziarduenak, baiña bene benetan izaten danik ez uste izan. Bai zera... Eriotzea bere jazki zuri ta sega eskuan dakarrela agertzen danean atsera egiten dabe. Naiz eta bizitza sarritan neketsu, gogorra izan, eguneroko lan astunegia jasan bear izan, lapak aitzari bezela, eriotzaren aurrean, eitsiten dautsagu.
Ipuin onetako aintzaindari agurea be olan ebillen. Udako egun bero, zargoria zan. Bere lepo ganean sendor astun bategaz, gutziz nekatuta, izerditan bitsetan joian. Azpurturik sendorra lurrera bota eban iñoala.
Eriotzeak etorri ta beragaz eroan naiala. Bizi osoan olan nekatuta ibilli baiño iltea be oba da.
Berba, itz, oneik esanez batera, bat-batean, eriotzea ber-bera agertu jakon, eta agureak orduan bildurrez dardaraka, auxe esan eutsan.
Zertarako zatoz? Zer nai, gura, dozu?
Zer nai dodan? eriotzeak iñotsan. Ori zeuk jakingo dozu. Zure deia erantzunez natorkizuta.
Bai, egia da. agureak erantzun, egur sendor au nire lepoan ezarten lagundu daistazun deitu dautsut.

EUNEKO BAT

Jon eta Peru gazte azkar, urduri, adoretuak dira. Euren bizi osoa ikastetxean emon dabe. Gaur egun, ipuin au idatzi zan aldian, Ikastetxe Nagusitik besapean "Ekonomista" deritxon txartela edo "titulo" ebela, urten dabe. Euren elburua bizi-bide ez azke izatea da, eurak euren-

tzat lantokia sortu, garazle bidean euren ikasiak arduraturik. Langabetasuna ain ugari dan aldi onetan egin bear au, au dan lan-tokiak sortu, beste batzuentzat ezaririk, bakoitzak bere lan-tokia lortuko ba lebe, ta ez geiegitan entzuten dan lez kezkatu, negarrez ibilli, langabetasuna dan arazo zuzen-bide iluna, errezago argituko litzake.

Gure ipuiñeko aintzindariak gazte adoretuak ziran, biotz sutudunekoak.

Une onetan, nik ain miate dodan gizon batek sarritan iñoana, burura jatost, Gazteak biotz aundi, emankorra dabe, baiña burua ez aiña. Gazte oneik, Jon eta Peruk ain bat lantegi ikustatu ondoren, gizon zaartxu batek guztitariko sal-erosgaiak saltzen ebazan dendeaz geratzea erabagi eben. Gizon zaartxuak urte luzeroetan bizi-bide ta irabaste, eskuratze, diru-eskuratze egoiak lortu ebazan denda maitagarria, urtearen ondorioz itxi bear eban.

Gure gazte biak, gogotsu, naimen osoz, denda barrian, eurentzat barria zan, urte askotan ikasiak eta euren bizia osoa, amaibako lana egunero egiñik, naigabez, euren izerdiak bear bezelako saria ez ebela ikusten eben.

Jon eta Peru garazle urala urte betea zan, artero denda beratako naguu ta jabe izan zan agurtxuak, gure aintzindariak ikusteko, obeto esanda, dendatxua bere dendatxua zelán zan jakin guraria bere barnean bizkortu jakon, eta bertara urreratu eta dendalari gazte barriak alkar-izketa apur bat egin, egiokoiena zala uste izanik, or dogu gure gizontxua antziñako bere denda maitagarrian.

Irukote au luzaro alkar-izketan ziardun, eta gazteentzat garazketak ez zirala eurak, gazteak, itxaroten ebenak, nabarmenez agertu jakon. Bear ba da dirua galtzen egozala. Olako baten Peruk, gastetariko batek, agureari itaundu eutsan.

Baiña zelán izan leiteke, gu biok, gazte biok, ain-beste ikasiaz, ain beste urte ikasteetxeetan ibilli, milaka ikaskai ikasi, beti liburu artean izan, ezin dogu denda au aurrera atera, bide ohera, irabasteak lortzera, eroan, gidari, eta zuk, ikastetxe nagusia joan bakoa, gitxi ikasikoa, liburu artean ibilli bakoa, urte luzarotan denda onegaz zeure bizitza eroan dozu, urte luzarotan irau dozu diru ugari eskuratuz, guzti au jazotea zelán izan leiteke?

Ara adiskideak, dendalari zaarrak erantzun eutsen, nire bizitzan ni euneko irabaste aundien atsean, lortu naian, ez nintzan ibilli. Nik euneko bateaz euneko bat irabaste lez, naiko neukan. Nik sal-eroskiak ogerleko baten erosten nebazan, eta euneko bian saldu, beraz euneko bat irabasten neban.

IJITO TA TXAPEL-OKERRAK

Ijito gizartea ta Txapel-okerrak, guardi-sibilek, gizarte bi oneik euren arremanetan iñoiz ez dira alkar-maitaleak izan. Ara begira Andaluzi aldeko uri aundi baten zer jazo zan.

Uri orretako kaleetatik zear ijito bi alkar-izketa mamintsuan joiazan.

Onetan kale ertz batetik biratean, kale beratan beste aldean andra-gizon aldra aundi bat, zerbait bertan jazorikoa begiratzen zirala, ikusi eben. Gure ijito biak be gizaki-moltso orretara urreratu ziran, zer jazoten zan jakin gurean, baiña andra-gizon taldea eragozpen izanik, gertaeragaz ez ziran jabetu, azkenean begirakide bateri itaundu eutsen.

Mezedez, zer jaso dan esango daustazu?

Bai zelán ez, adiskide. Ara, or ikusten dozun kamioi Pegazo orrek, ez dakigu zer ziogaitik guardi-sibil bikote bat zapaldu ta il dau.

Ijito biak, gertaera onen aintzindari biak, unetxu bat moltsokideak izan ziran, baiña alako baten zerbait egitera joan ebela ta eurretarike batek besteari esan eutsan, kaletik joiazala esan eutsan.

Manue, goazen emendik. Ez neutsun nik beti esaten Manue Kamioi Pegazo oneik onak urtengo ebela. Ondore ona izango ebela.

TXAKURRA SALDU EZ

Enrike gaur goizean txantxelari. Guztiz alai, pozez beterik ogetik jagi da. Naiz eta arto jorran, lan ez oso ez naiezkoa berantzat izan, joan bear. Enrike gaur txantxetarako gogotsu da.

Euren egoitzan zan basetxeko aurreko soloan bere andra Juli lagun ebela, Enrike artojorran ziarduen bitartean alkar-izketan, lanik gogorrena be alkarizketarako lankidea izan ezkerro ero-soago izaten da ta. Gure bikotearen berbetagai etxeko txakurra zan. Baiña entzun eizu, irakurri eizu irakurle, gure andra gizonaren izketa.

Ba dakizu Juli, Juli Enriken andra maitagarria da, gure seme Apik, au Api semetariko bat, txakurra, milla laurlekogaitik be ez dauala saldu gura?

Aurreratu bear dautsut irakurle, milla laurleko aldi, aretan gizonak iru ilebeten irabasten eban dirua zala.

Zer diraustazu, Enrike, txakurra milla laurlekogaitik gure semeak ez dauala saldu gura? Josus! zer dauka txakur orrek, ba?...

Ez, ez, semeak olan diño, diru orregaitik ez doala saltzen, Enrikek esan eutsan...

Baiña Enrike, gure txakurrak milla laurlekogaitik saldu ezteko, zer dauka ba?... Zergaitik, jarraitzen dau Julik, gure semeak milla laurlekogaitik ez dau saldu gure txakurra ba?

Diru ori, milla laurleko orreik, nok emonik ez daukalako.

LARUNABATETAKO ALOGORA

Gizaki, gizaseme apur bat atseratu, beintzat olan daitzen jake, izaten dira, eri geienetan izaten dira, eta nire errian be olako bat bizi zan.

Jarraian irakurri al izango dozuna jazorikoa da, ez da txantxa ez ipuinik.

Gertakoen aitorle, neu naz. Iluntze baten trenean etxerantz niñoiala jazo zan.

Aste erdiko egun bat zan. Iluntzea, eguneroko lana amaitu ondoren geure egoitzetara giñoiazala. Lau bost erritar trenean giñoiazan eta euratariko bat Santoztxu, gertaera onen aintzindaria, baita taldekidea zan Pontxon, gizon zintzo adifiekkoa, eta onek alkar-izketa une baten leenengoari, Santoztxuri itaundu eutsan.

Zer Santoz, orain emen, au zan trenera igon eban erria, lan egiten dozu, ala? Non egiten dozu, zein lantegian egiten dozu lan, ba?

Bai, Iturregin arrobian egiten dot lan, Santoztxuk erantzun.

Iturregi, iñotsan Potxonek, gizon deduzko, zintzoa da. Gizon guztiz zuzen ona, Potxonek jarraian esan eban.

Santoztxun erantzuna tximista bezelako arin, zorrotza izan zan.

Bai, ori diñoizuna egia ba da datorren Larunbatan ikusiko dogu, esanez.

Aldi aretan lantegietan oiturazkoa zan Larunbatetan asteroko alogera eskuratzea.

PIPER LANDARAK

Oraingoa be nire errian jazorikoa da. Kondaira da ez txantxa, txistea. Santoztxun gertarea au bezela orain berrogeta amar bat urte da jazo zala.

Nok nire errian ez eban ezugutzen Josetxu, mutil gazte apur bat atseratua, sendi deduzko, zintzo, errikoi, erri maitaleen semetariko bat.

Orrilla zan, arto-indabak erain eta barazkiak landaratzeko sasoi. Josetxun sendiak be, arto-indabarik ez eban eraiten, baiña barazkiak bai landaritzen ebazan.

Goiz baten Josetxun aitak bere arrebagaz alkar-izketan zirala, piper batzuk landaratzeko gogoia ebala agertu eutsan, baiña landararik ez eban ezkeru bere seme Josetxu Elortzaburu basetxera piper-landara billa bialdu bearke ebala esan eutsan.

Ez, ez, Josetxu bialdu bearzenik ez ebala iflotsan. Piper-landarak geiñezka daukadaz, eta euneko bat zein bi neuk emongo dautsudaz. Arratsaldean piperrak landaratzeko asmua ba dozu, Josetxu gurera arratsaldean etorri daitela.

Alan egin eben, Josetxu arratsaldean bere izekoaren etxean izan zan. Joan ziran, izeko lobak joan ziran ortura, eta landaratxuak atera ta zenbatzen asi ziran, bat, amar, ogei, berrota amar, larogeta ama sei, ama zazpi amazortzi, larogeta emeritzi... eun...

Geiago ez izeko, batxu bat bere geiago ez izeko, eten eban Josetxuk piperlandarak zenbatzea.

Piperrak, berak Josetxuk lanadaratu bear ebazan, eta gure mutil alperriko lanik egiteko ez egoan. Eun landara bere aitak agindu eutsozan ekarteko... bat be ez geiago.

ZORRAK ORDAINDU

Erri ta lurralde guztietan gizon deduzko, zintzo, langileak izaten dira. Olako bat Joxanton zan. Bere eginbearrak ondo jakin eta zintzo egiten ebazana. Bere ogibidean lan txalogarria egiten eban, eta orren ondorioz etorri, diruezkuratzeak be egokiak ziran. Beste alde batetik aide larregi ez ebalako edo bere izakeragaitik, gizon ardonazka zan, edantegi joko ta olako tokietako bezeroa ez zan. Oso apal, apainketa oparotsu gabe, aundikikeri ez aje, griña zitalik be ez eban.

Baiña errietan eta baita be lurralde guztietan beste erako gizon maltzur, bekaitzak izaten dira. Onetariko bate beifñola Joxanton gure gizon langileari itaundu eutsan.

Zu Joxanton, zure irabasi, eskuratzeakaz zer egiten dozu?

Zer egiten dodan? Joxantonek erantzun. Ara, arretaz entzun eistazu mezedez.

Nire eskurazteen zati bat, leengo zorrak ordaintzeko bear dot, eta jakin eizu ez dirala ore-mengoak. Beste zatia, enparau, erriditoan ipinten dot.

Baiña, zelango zorrak dozuz zuk ba? barriro itaundu eutsan.

Ain-beste zor dausedan aita-amari, nire aita-amari, laguntzea. Orreik dira nire zorrak. Txikiak dirala uste dozu? Eta beste nire diruak, nire seme-alabak zuzen eta zintzo izaten eta bizitzari aurpegia emoten ikasi dagien, laguntzen emoten dot.

Joxanton benetan gizon zintzoa.

JAKEA JAUSI

Uri aundi baten argin batzuk etxe bat eraikiten ebiltzan. Aldamu edo oltza ganean langileak eguneroko bearra, lanean, ziarduen. Langile onein lan-lokia bostgarren sorailua zan, eta zori-txarra edonun eta edozein unetan agertzen dan lez, aldamu orren ganean be naiezezko deia ein eban.

Gure langiletariko bat aldamu ganerik lurrera jausirik, guztiz txarto ilzorian aurkitzen zan. Osaetxean bere bizitza, langilearen bizitza, langilearen bizitza gaizkatze naian osagile ta bere

laguntzaileak alegin guztiak egin ebezan, baiña guztia alperrikoa izan zan.

Ildako langilea ezkondu zan ezker, bere andreari ezbear negargarri onen barria emotea, barri gogor, atsekabetsua emotea, langilekideen artean ez zan eurentzat gurarizkoa. Azkenean eurentariko bat, langilekidetariko bat, ildako andrearegana joaten ausartu zan.

Nau joango naz, Txantonek esan eban.

Esan eta egin, Txanton langile lagunaren etxera abiatu, deitu eban atean eta Miren, alargun barria zana, ageturik, Txantonek esan eutsan.

Ola Miren, esan eutsan, zure gizonak izan dauan ezbear baten barria adierazoten natortsu. Lanean, aldamu ganean lanean egoala, lurrera jakea jausi jako.

Ori ez da ezer, andreak erantzun. Izan daitela ori ezbearrik nabarmena. Bere soiflean ipiñi dagian beste jake bat emongo dautsut.

Baiña, Miren, ori ez da txarrena, Txantonek jarraitu eban. Jake barruan, barnean, zure gizona lurrearatu da.

EUSKAL-KONDAIRA

Txantxa, Irribarre ta pozezko idatzi artean, idazki, irakurgai, astunago, nabarmendun, garrantzitsuak erabiltea, egokia izango jakula uste dot. Nire gurari, naia, zuekaz euskera erabiltea izanik, euskera bultzatu, edatu daiten gure erriaren kondaira buruz idaztea, gure kondaira edestea, bearrezkoa dogu.

Azalpen onen ondoren, goazen ba arira.

Gure aberri txiki, lurrez txikia, oneri kondaira zear alde guztietatik zatiketak egitiñik, lurraldeak kendu dautsoez.

Akitania alden, Oska, Zaragoza, Burgos eta Santander aldean Euzkadik lurralde bereziak galdu dauz.

Aitatu dagigun gertaera bat. Haroko kondeak, 1.471 urtean Castro Urdiales Bizkaitik aldendu ta banatzeko agindua emon eban. Ordurarte, Gernikako batzarretan Castroko ordezkaria Ondarru ta Gernikako ordezkarien bitartean jezarten zan.

Errioxako erri polita dogun Naxera be aldi baten Euskalerra izan zan. Bertan, Naxeran, Andra Mariaren eleizan Naparroako erregeak, errege ospetsuak, ilobiratu ebezan. Naxerako Andra Mariaren eleizan euren ilobiak ikusi daikezuz.

Aldi aretan Naxeran euskera egiten zala, alboan dagon Donibaneko eleizan, lekaideetxean agertzen diran euskerazko esaldi batzuk, baitatzen dabe. Latíñezko liburuan ulertu eziñeko, ulergaitzak, esaldiak argitze naian liburu ertz eta bitarteetan agertzen dira. Esaldi oneik “glasak” ziran. Izioki dugu, “guk ajutu ez dugu”, idatzitariko esaldi batzuk. Milla urtetik gora idatzi zirala.

Santxo Azkarra Kordobara ta gero Aprikara joan zanean, Errioxako lurraldeak Euskalerra galdu ebazan.

IL-ZORIAN OSASUN ONA

Gogo berotze naian, bizitze-guraria bizkortu naian Osagile batek bere adiskide gaixorik egoanari esan eutsan.

Ez larritu, zure putsua ondo dago, zure biotz taupadak bear bezelakoak dira, birikietan ez dozu ezer kaltagarririk, sukarra baretu ta berantz doala esan leiteke.

Ederto adiskide, gaixoak Osagileari erantzun eutsan.
Orrek esan nai dau, osasun oso onez ilgo nazala.

EBAGI ONA

Bein baten, bost sendalari ta ikasle osaetxean saio-aldi batzuk egiten egozan. Egun aretan gizon gazte bat arakutzen luzaro jardun ondoren, bost ikasleak gizon orren gaixoaren buruz eztabaidatzen ziran. Luzaro gazte ikasleak gaixoa arakatu eben, baiña gaitzaren buruz euren eretxiak ezbaridiñak, guztiz ezbaridiñak ziran. Azkenean euren eztabaida amaiturik, gaztetariko bat gaixoaren osaetxean geratu zan, eta besteak euren etxeetarantz jaoan ziran.

Gaixo ta gazte-ikasle bakarrik geratu ziranean, gaixoak esan eutsan.

Zure eretxia nire gaixoaren buruz zure lagunakandik oso ezbaridiña da, ez da?

Bai alan da, gazteak erantzun, baiña zelan nik egi osoa dodan ikusiko dozu. Zuri "autosia" gaztelarrez deritxona egiten dabenean ikusiko dozu.

TXAKURKUMAK

Koldo eiztaria da. Ganera eiztari ospetsu, ta eiztari ospetsu baten etxean eiztari-txakur trebeenetarikoa bat barik izatea, ulertu eziña da. Bai Koldok oilgor-txakur eme aize onekoduna, beintzat bere esatez, dau, ta txakur-eme onek txakurkuma batzuk ekarri dautsaz. Ain zuzen be bost txakurkuma bata baiño bestea politagoak. Koldo txakurkaz pozik da, baiña sei txakur eukitea larregi deritxo. Eurakaz txakurkumakaz ez daki zer egin.

Bere andra Pelisak, beste eiztari adiskide artean banandu egizala diñotso, baiña zoritxarra bere adiskideak euren oilgor-txakur trebeenak daukiez eta etxe inguruan euren andrak txakur geiago eukiten, txakur auzi geiago ez dabe entzun gura ta, ez jake bat be atsegintsu.

Azkenean Koldok Txakurkumak doan emonez, irratitik dei egin eban. Leenengo bost, irratitik deituko eben leenengo bostari txakurkuma bana emongo eutsola, iñoan. Iru edo lau egunetan dei au egin eban, baiña txakurkuma billa ez zan iñor agertu.

Koldo txakurkumaren arazoak dirala ta azperturik, bere lagunakaz gai onen buruz, arazo onen buruz, itz egiten eban, eta Txolonek erritara, beragaz sarritan eizta-laguna izanak, esan eutsan.

Olan ez, gizona. Doan ez gizona, doan emoten danak, uste izaten dogu, balio gabea dala. Irratitik beste dei bat egizu, baiña oraingoan txakurkumak salgai sal-neurria geikeri barik, baiña merke be ez ezarriaz.

Orixen egin eban Koldok, irratitik dei barri bat egin, txakurkumak, bost txakurkuma, bi milla laurleko bakoitzagaitik eskatuz.

Orain bai, arik, irratitik dei egin ebanetik, ordu bete baiño leenago bost erosle agertu jakozan, eta Koldo eiztariari arazo bat zuzendu jakon.

ZIURTASUNA PREMIÑAZKO

Baiñola larogei bat urte inguruko atsotxua leenengoz egazkiñean joian, eta egia esan, naiko arduratsu, larri. Egazkiña ordu ta erdi inguru egaz joiala ezbear anbat bertako nagusiak naba-riturik, bidalikidei telefonoz iñotsan.

Laugarren bultzagarria amaitu jaku, ta orain iru bultzagarriaz goaz. Baiña nasai, ordurako elduko gara ta ziurtasun osoz ezbear-gabe elduko gara.

Orrez ganera barri on bat emon bear dautsuet. Gugaz, egazkin onetan gugaz, lau Gotzain doguz, eta onen otoitz-laguntza berezia izango dogu.

Atsotxua bitartean, nagusiak iñoana entzuten larri-larri egoan, eta nagusiak bere izketa amaitu ebanean, azafaterari deitu eutsan, esanez.

Mesedez, nagusiari esango zeuskio lau Gotzain orren orde, lau bultzagari sendo-sendoak egazkiñek eukitea naiago geunkela.

KOXEPA ASTRONOMUA

Dirua eskuratzeko buruduna izan bear dala? Kia, bai zera. Ez nago orretan. Buru argi barik be diru naiko eskuratzen dot nik, Koxepak bere auzokidei poz-adurrean esaten ei eutsen.

Egia esan, Koxepak dirua, eta ugari, polito aurreratzen eban, eskuratzen eban. Amaika dema astronomuei eguraldi ona ala txarra aurrerako egunetan izango zala ta irabasia zan. Izar-jakintza, astronomi, buruz ziran dematan Koxepak laguntzaile berezia eban. Bere laguna zein zan igarriko eta zeuskide. Txapar izeneko astotxu zaar-zaar bat zan Kosepan Laguna. Txaparrek belarriak alde batera ta bestera ibiltzen ba ebazan, eguraldi txarra izango zan, osterea belarriak geldirik ba ebazan eguraldi ona ona izango zala adierazoten eban.

Baiña Kosepak astronomuei Txaparrak jokaera zelakoa zan esaten eutsenik ez uste izan, bai zera. Zuek be ixilik euki.

Koxepa bizi zan erri beratan, On Luzio, ganera auzokide, gizon oso aberatsa, lerrondo, piñu, ta beste zugaitz garazle zan ezker, bere zeregiñetan mendi-basoetan lanerako zelako eguraldia izango zan jakitea garrantzitsua zan. On Luzioentzat aurretizik eguraldi ona ala txarra izango zala jakitea, bearrezkoa, arduratsua izaten jakon. Aldi aretan On Luzio kezkatu, arduratsu agertzen zan. Larrondo, piñudun baso bat obeto esanda, baso lerrodun bateko zugaitzak bere lantegira urreratu bear ebazan. Negua urbil ikusirik ez da arritzekoa On Luzion larritasuna. Basoan lanean, piñuak lurreratzen ai baiño leenago zelako eguardia izango zan jakin nai eban. Orretarako astronomu artean dei eginda, ara ze opatzen eban.

Urrengo bost sei astetan zelango eguraldia izango zan igarten eutsan astronomoei amar milla ogerleko emongo autsozala agindu, eguralditzaz oker zian astronomoei bost milla kendutekotan.

Amar milla ogerleko, aldi aretan ez zan ba dirutsa makala. Izendatuta zan ordu ta egunera-ko On Luzionean ia erri osoa aurkeztu zan, eguraldi gora-berak igarteko asmuz, edo amar milla ogerlekoak eskuratzen asmuz.

On luziok astronomuek etxeko, bere etxeko, gela batera eroan ebazan, pitxar batzuk ardao ta lukinka ugari atara ta, euren urdaila ta estarriak gozotzen ebezan bitartean, astronomuek an ebiltzan euren eretxiak adierazoten.

Datorren lau-bost asteetan euririk ez da izango, On Luziori astronomuek iñotsen. Eguzki ederren eta gozotsuena izango da. Eguraldi legorra. Beraz On Luzio baso, lerrondo, piñu lanen buruz ardura-gabe izan leitekela, iñotsen.

Astronomuek eretxi oneik esaten zirala, atean, tan-tan, deika entzun zan.

Nor zara? gela barnetik itaundu eutsoen.

Koxepa Errotako naz. Idegi eidazue atea, mezede, Koxepak esan eban.

Atea idegita Koxepa ikusi ebanean On Luziok esan eutsan.

Baiña andrea eskean zatoz ala?

Ez, ez nator eskean, Kosepak erantzun. On Luziok datorren asteetan zelako eguraldia izango dala jakin nai dauala entzun dot, eta orixe erantzutea natortzue. Neuk be neure eretxia jarri nai nuke.

Baiña ez dakizu ba, astronomuek soilki etorri leitekezala?

Astronomuek soilki? Eta neu astronomue ez nozue ala? Kosepak iñotsen.

Bai ba, beintzat itxurea ba dozu ta...

Itxurea soilki? Itxureari jaramonik ez eiozue, egin mezedez sartzen zilegi eistazue, Koxepak esan eutsen.

Asto ta guzti sartu gura dozu, ala? On Luziok iñotsan.

Bai asto ta guzti. Astoak be arazo onetan zer ikusi berezia dau, Koxepak iñoan.

Sartu zaitetz Kosepa, sartu zaitetz. Zuretzat be gozoki batzuk ba dagoz eta.

Eskerrak jauna, baiña ni gozoki batzuk jatearren ez nator, Koxepak erantzun. Ni On Luziok erantzuna emoten nator, eta guztion baimenagaz orixe egingo dot.

Zeu etortea ondo deritxat, On Luziok esan eutsan, baiña astoa ekarriko zenduan ba? Ia eragiozu arrantza, zelako abotsa dauan jakin dagigun arrantza eragiozu.

Adar jotea nai ba dozue, ondo dago, baiña ez dot uste astronomu oneik ezer ezer zuzenik esan dautsuela, Koxepak jarraitu eban. Datorren asteetan eguraldi ona izango dala baieztatu dautsue On Luzio? Jakintsu oneik giro-iragarpena datorren asteetarako agertu dauena? Alai ikusten zaitut eta?

Alantxe da Koxepa, On Luzio alai erantzun eutsan, eguraldi guztiz ona izango dogula esan dauste. Zuk zer diñozu?

Ez dakit ba... ez dakit ba... aldiska Koxepak diñotso. Ori bai, Txaparren belarriak aditu ondoren. Astoaren belarriak pli pla pli artega atsera ta aurrera ebiltzan.

On Luzio astronomu, jakintsu oneik, guztiz oker dira, Koxepak bere giro-iragarpen esan naian larri zala, diñotso.

Datorren astean eguraldi txarra izango dogu, ta urrengo aste bietan ekaitz euri ta aizea izango dogu, ondoren edurtzeaz ondiño eguraldia gaiztotuz, beraz baso-lanetarako aro guztiz ezezkorra. Gaur gaba ordurako zerua ura dariola izango dogu.

Ja... ja... ja... ja... ja. Andrea ez egiguzu barre eragin. Ia gozoki batzuk artu eizuz eta baita be txolatxu bat, ia zentzunera zatozan, astronomutariko batek esan eban.

Zentzunera nok etorri bear dauan laster jakingo dogu, agur iluntzerarte. Bereala Koxepa aldendu zan.

On Luzio ta bere lagunak, ludian zear dabiltzazan ijitotariko bat zalakoan ez eutsoen jaramonik egin.

Bitartean bere astotxua trailan ebala, Koxepa etorri zan bide berataik joian, bere etxerantz joian bere baitan iñoala, iluntzean ikusiko dogu, bai ikusiko dogu.

Ordu bete inguru geroago On Luzio bere lagunak, astronomuek, giro-iragarleak, txokor bana muzturrean eroela erritik kanpora ibil-aldi bat egitera urten eben. On Luzio bere irabaste, bere eskuratzeak, diru eskuratzeek, azaltzen taldekidei azaltzen, entzungarri joian. Ez zan konturatzen ezigaz, baiña itxasaldetik laiño ta laiño ilun, baltz bat ba etorren, antza Koxeparen esana betetzen joian. Ordu lauren barru arteroko ortzi urdiña estaldua zan, ixildu zan aizea ta euria parra-parra dariola zala, gure astronomuen eretxiak aldendu ziran. Lurbira osoa ito bearrean izugarritzko uriolak agerturik. On Luzio ta astronomuek une onetan ikusi ba zenduzan, irakurle? Arrapaladan, sokorruka, emen jauzi or altzatu, aterpe anbat non aurkitukoan joiazan. Errira sartukeran gizon talde onek ekarrena itxura makala, errukigarria.

Mutilek, iñoen alkarrei astronomuek, ain bat leen erritik kanpora goazen, osteratzean ondatuak gozak.

On Luziok gizon onein kerik be geiago ez eben ikusi. Bada-epada anka egin eben, baiña arik egun gutxitara astronomuek On Luziori zor eutsoezan bost mila ogerlekoak emon eutsoezan.

Ostera, berak be, On luziok be, nonbaiteri emon bear eutsozan beste laurleko batzuk, eta astea igaro baiño leenago Koxepa Txapar lagun ebala On Luzionenean atejoka an agertu zan.

On Luzio, ez nautsun esan nik? Ai! nire astotxua baiño astronomu obarik, ludi onetan ez dago. Gogoratu eizu, On Luzio zelan eguardi gora berak igarri dauazan.

Eta gure Koxepa, beti bere Txapar lagun ebala, egun aretan amar mila ogerleko eskuraturik etxeratu zan. Ostera be, berak diru ugari eskuratzeko ez ebala bear buru argirik, esango eban. Nok ez gero, alako lagun bat izan ezkerro? Baiña, txik, ixilik, irakurleok, On Luziok Txaparen trebetasuna ez dagiala jakin.

ABERASTASUNIK BEREZIENA

Nire asiskide Ander makal aurkitzen zan, gaixorik oba da esatea, ba da makala betirik zan, eta Osagileagana joatea erabagi eban.

Arik egun batzuk geroago, Osagileagana joanda egun batzuk barru, Sendagileak zer san eutsan itaundu neutsan.

Batiko leloa, Anderrek erantzun eustan. Ez edateko, ez erreteko, nire gaitzarentzat oso kaltegarriak ei dira ta. Baiña goizeko seiretan ogetik jagi ta lanera, lantegira joatea kaltegarria dodala ez daust esan, eta zuzen be, orixe da, ni makaltzen nauana lanera joatea da.

Ander, olakorik ez eizu esan, zelan izan bear dau kaltekarria lanak. Lana gizona goraltzen dauan jazoki ederrana da, osasun-iturri, esan neutsan.

Orrek Gabon abestiak dira, erantzun eustan. Ori olan balitz, lana osasun iturri izango balitz, aberats, dirudunak, lana guretzat, beartsuentzat, itxiko leukiela, uste dozu.

EMAKUME ALKAR-IZKETA

Beiñoia antzerki-emakume bi, naiz eta euren artean maitasun-eza izan eta bai alkar ikusi-eziña, kalean topo egiñik, maitasun osoz agurtu ziran.

Euratariko bat liburu bat idatzi ta argitaratu egin barria zan, eta euren izketa unetxu baten bere lagunari berak idatzitako liburutxua irakurri ba eban, eta zer eritxon, liburutzaz zer eritxon, itaundu eutsan.

Bai irakurri dot, erantzun eutsan, besteak erantzun eutsan, eta egia esan nire guztokoa da, ondo deritxat, baiña nok idatzi dautsu ba?

Beste antzerki-emakumearen erantzuna, bereala izan zan, eta emakume onek be bere erpak erakutsi ebazan, iñotsola.

Naiz eta zuk ez sifiestu neuk idatzi dot, eta zuri nok irakurri dautsu ba?

LANA EZIN UTZI

Azpalditik ikusten ez ziran andrazko bi kalean zear erosketak egiten ebiltzala topatu ziran, eta gertaera ugari alkarrei azaltzeko ebezan ezkerro, jo ta izketan jarraiturik, konturatu barik astia aurrera joan jaken, eta etxeratzeko ordua zala ikusirik, euretariko batek besterai esan eutsan.

Josus! guztiz berandu da, zazpirak dira eta etxera ariñeketan joan bear dot. Nire gizonak zazpiretan bere lana amaitu ta utzi, itziten dau, eta belu nabil. Zureak, zure gizonak bere lana ze ordutan utziten dau ba?

Nire gizonak lana utzi... diñotso besteak, zelan utzi, itziko dau ba, iñoiz lana asi ez ba dau egiten?

DIRU-ESKURATZE BEZELAKO SUKALDARI

Miren eta Jon ezkondu ziranetik urte gitxi dira, baiña euren arteko maitasuna ezkon aurrean aiñako beroa ez zala dirudi. Ez ta baida larregi, bekoki ilunak andra-gizon onen artean agertzen zan.

Jon, antza zanetik, mai oparotsu ta jaki gozodunean jaten oiturakoa zan. Bere ama sukaldari trebea ta bere aitak diru-eskuratzen egokiak lortzen ebazan.

Bere andra Mirenek jaki bere guztokoak sukaldatzen ez ebazalako euren maitasun makal-tasunaren errudun zan.

Egun baten Jon bere lanetik etxeratu zanean, bazkaltzeko asmuz etxeratu zanean, eta bazkaria jaten zengozanean bere andreari esan eutsan.

Nire amak ain ondo janariak sukaltzen noiz ikasiko dozu? Jonek esan.

Andrearen erantzuna, min-ganean egoan, ustez, tximista argia aiñako zorrotz eta ariña izan zan.

Zure aitak zure amari ilero emoten dautsan dirutsa zuk emoten daustazunean.

EURITZE

Egun aretan euritze izugarria zan. Iñakik bere lantegiko zeregin, arazo bat zuzentzeko asmuz, urruneko uri aundi batera joan bear izan eban.

Iñakik lantergitik bere kotxe dotorean urten eban. Baiña kotxe dotore, garestiak be ezbear txikienagaitik gelditzen dira, eta Iñakiri bere kotxea bakar leku ta euritze izugarritzko zan egun baten geratu jakon. Gazteak barrero bere kotxea abiadan ezartzeko alegin guztiak egin ebazan, baiña alperrik izan jakon.

Azkenean arazoa berantzat zuzendu eziña zala ikusirik, buruan eban erabagi bakararra artuaz, nora doan bidea artuta argitarantz abiatu zan. Gaba iluna bere egoera baiño be ilunagoa ekaitz eta euriak aunditzen eban.

Asao barik ikusten eban argi izpi batera bere oinkadak joiazan, eta arik asti labur batera etxe txiki baten atarian aurkitzen zan. Deitu eban atean baiña leenago deia entzun gabe loturik, bein eta barrero dei egin eban. Olako baten atea idegi ta bere aurrez aurrez gizon zaartxu bat agerturik, berak aguretxuak esan eutsan.

Gabon, zer nai dozu?

Iñakik, kotxeagaz jazorikoa gizontxuari azaldu eutsan. Zelan kotxea azbear batagaitik lotu jakon eta eziña izan jakola abiadan jartzea, eta orregaitik gaba ilun eta euritsu a ia an igaro ba al eban jakin naiala, adierazo eutsan.

Bai, zergaitik ez, agureak erantzun eutsan, nigaitik zeuk nai dozun arte geratu zeintekez or.

Esan bear dogu, atarian zirala, etxez kanpo eta ez etxe barnean.

AZAK BURUZ BERA

Nire adiskide Peilok bizi-bizi, ogia irabasteko asmuz, barazki denda bat jarri nai dau, barazki-gerazlea izan gura dau. Egia esan Peilok barazkitzaz oso gitxi daki ta garazle buruz ez asko geiago. Orrexegaitik bere adiskide Manu, dendalaria bera, lagun ebala ta lagunaren onuei jarraituz, egun baten bikotea uriko azoka nagusira dendarik denda, guztia ikusten edo ikusteko asmuz joan ziran.

An ebiltza gure bikotea dendarik denda, ta alako baten Iñaki barazki-dendalari bategana urreraturik, bertako, dendako arduraduna bere eskuetan azak artuta banan banan azak berantz adi ezarririk eta astindu ondoren, jarririk, gero otsara baten ipinten ebazala, ikusi eban.

Bere ikasi-naiak eraginda Peilo dendalariagana urreraturik, esan eutsan.

Zu adiskide, aza orreikaz egin dozun lana zegaitik egin dozun, esan nai daustazu?

Ez, ez da ezelako lanik, gizonak erantzun eutsan, denda onen giltzak billa nabil.

EBAKETA ZELAN EGIN

Julitxu, nire bestaldeko atsotxua osaetxera eroan dabe. Bere gaixoa ez da gizakia kardabatu aiñakoa, ebaketa bat egin bear dautse, ta bere senideak osaetxeratu dabe.

Gure atsotxuak, Julitxuk ebaketa au dala ta, Osagilleari milla itaun egiten eutsozan, eta egia esan azkenean gaixo-zaiña guztiz azpurturik iñotsan.

Andratxua, milla bider ebaketa zelan izango dan eta zergaitik erabagi au artu dogun esan dautsut eta guztiz nasai, arduragabe izan zaitez, eta biar gabean zein alai, pozik izango zaran ikusiko dozu.

Bai, biramonean Julitxuri ebaketa egin bear eutsoen, baiña Julitxu bere baitan bein eta barriro oldoztuz, kezkatu egoan eta ordua eldu zanean barriro Osagilleari esan eutsan.

Azkenengoz esango zeuskide jauna ebaketa zelan izango dan?

Baiña Julitxu ebaketa orretzaz, ebaketa orren buruz, azaldu bearrezko guztia esan dautsut, geiago ez dot zer esanik.

Bai, bai, esan daustazun guztia jauna, buruan dot, baiña garbiketa-neskameak, ebaketa ori egiteko beste era bat dagola esan daust.

LAN-UKATZE

Uri aundi bateko langileak, lan-arazo batzukaitik euren nagusiagaz borroka, lan-uzte gogorean ebiltzan. Gertarea bardiña gure artean be arazo bardiñakaitik jazoten da, beraz sarriegitan.

Lantegiko atea giltzatu ebazan, bat izan ezik, onetan langile talde batek, lantoki barnera igarotea eragozten eban. Kamioei be ez eutsoen zilegiten sartzea.

Eguerdi baten kamioi txiki bat lantoki aurrean agerturik, bertan agertzen ziran zaindariei baimena eskatu eutsen, baiña langile taldeak eragozpen eutsoen. Bein eta barriro kamiogidariak lantokira sartzen zilegi egiela eskatu eutsoen baiña alperrikoa izan zan. Orduan beste barik, ezelako azaltusunik emon gabe gidaria bere kamioi txiki az itzultera abiatu. Onetan taldeko batek oiuka itaundu eutsan.

Zu adiskide, kamioi orretan zer dakarkuzu ba?

Joan dan ileko alogorak, eta beste barik aldendu zan.

SEME-ALABAK NONDIK DABILTZ?

Uri aundiko elkarte batek, bertako gurasoen arte eure seme-alabak iluntzeko bederatzietatik gabeko amabiak arte nondik dabiltzan jakin naian, ikertze bat egitea erabagi eban. Deadarak telefonoz egingo ebazan.

Leenengo amar deiak etxe beratako seme-alabak errantzun ebazan, eta euren aita-amak nondik ebiltzan urrunetik be ez ekien.

Eredu polita seme-alabak ondo ezitzeko.

GOGO-SENDAGILEA

Nire adiskide Koldok ia gabero ameseta arrigarria izaten ebazan. Berantzat ain kaltegarria zan ezbear au osatu naian Osagileagana joatea erabagi eban.

Osagilearen aurrean aurkezturik, oneri esan eutsan.

Jauna, gabero kamioi aundi bateagaz amesetan egiten dot. Santanderretik Kadisera kamioa eroaten bear izaten dot, eta azkenean uri aundi aretara eltzen nazanean, guztiz nekatu aurkitzen naz.

Orregaitik ez zaitez arduratu, zure griña ori beingoan zuzenduko dogu. Aurrerantzean Madrilen jaitsi zaitez eta uri onetatik kamioa Kadiseraño neuk gidarituko dot.

Egun beratan Koldo iluntzean bere adiskide Josebagaz aurkiturik, onek diñotso.

Ara Koldo, guztiz arduratuta naz, gabero amesetan liluragarriak, baiña baita be kaltegarriak, izaten dodaz. Neskatik polit, eder, erakargarriakaz emoten dot gaba, baiña biramonean ilda egoten naz.

Joan zaitez On Maurizio gogo-sendagileagana, berak, jaun onek, zure arazoa beingoan zuzenduko dautsu, Koldok esan eutsan.

Arik egun batzutara adiskide biak alkar-topo egin eben, eta kamiodunak bere adiskidea leen baño makalago ikusirik esan eutsan.

Orain zer jazoten jatzu, Joseba, ez ziñan joan godo-sendagile-gana?

Bai, Koldo, joan nintzan on Maurizioagana, eta bai, neskatilaganako arazoa zuzendu eustan, baiña orain Madriletik Kadisera kamioi aundi bat gidaritzen dot, eta lan au naiko nezkarazlea da.

ALDE ONAK ETA ALDE TXARRAK

Gaur egun batez be neska-mutil eskongaiantzat bizilekua-eza arazo berezienetarikoa da. Nire idazki onen aintzindariak be arazo au, bizileku bat lortu naian arduratzu ebiltzan eta etxeraikile ugariagan jo eben.

Etxe-bizileku saltzaile bategana joan ziran, eta luzaro, euren egoitz barria izango zana arretaz ikusmiratu ondoren, etxe garazleari euren armua agertu eutsoen.

Saltzaileak sal-neurria adierazo ondoren bizilekuaren ongaitzaktaz iñotsen.

Ara bizileku onek alde onak eta gaitzak daukaz. Ikusi dagizuen ez zaituedala atsipetu gura, lenengo etxearen alde txarrak esango dautsuedaz.

Abere iltokia kilometro baten barruan dago. Iparraldean kautxu-lantegia, sorkaldean urzikin garbitzailea eta egoaldean ozoin lantegi bat.

Jauna... entzun... baiña aldiska iñotsan erosleak ... zeintzuk dira alde onak? Bizilekuak daukazan alde onak?

Ara, diñotso saltaileak, aizeak aztintzen dauanean, aizetze danean, nondik ze aldetatik datorren, joten dauan, errez jakin al ixango dozu.

ZAARRA ALA BARRIA?

Arantza irakaslea da, irakasle barria, ile batzuk dira irakasle-agiriaz, agiri barriaz poz, alai, saltuka etxeratu zala.

Baiña lan-tokiaz orrenbeste zorion ez eban izan, urruneko ikastetxe baterako izendatu eban.

Egun baten bere lantokia izango zan errira eldurik, eta ikastetxea non egoan ez ekian lez, lenengo ikusi eban erritarrare, jezarrita egoan aguretxu bateri, itaundu eutsan.

Mezedez jauna, erri onetako ikastetxea non dagon esango daustazu?

Aguretxua unetxu baten ixilik geratuta, ondoren geldiro geldiro belarri ostea atz egiten ebala, Arantzari itaun onegaz erantzun eutsan.

Zein ikastetxea da, barria ala zaarra?

Ba, ez dakit Arantzak erantzun, nik zaarra izango dala uste dot.

Bai, zarrak izan bearko dau, ondiño erri onetan barria eraikiten ez dira asi ta, agureak esan eutsan.

EZKONTZEA

On Serafinek ogetabost urte gure errian abade bezala daroaz, eta ogetabostgarren urtebetzea ospatu naian, joan dan Igandean Meza Nagusian erritarrei lenengoz egin eutsan itzaldia ber-beragaz jardun eban.

Ordu erdi baiño geiago itzaldiak iraun eban, eta aitatu dodan lez berbaldia ezkontzatzaz oso osorik izan zan.

Igande arrastian erriko kale bakarretik joiala, andrazko erritar bateaz topo egiñik, abadeak itaundu eutsan. Andratxua urtetan sartua zan, atsotxua.

Zer, Justatxu, gaur goizeko nire berbaldia arretaz entzun dozu, ez? agurtu ondoren, alkar agurtu ondoren, abadeak itaundu eutsan.

Bai jauna, atsotxuak erantzun eutsan, atsotxua ezkondua zan, eta gura neuke nik, berorrak beste ezkontzaz buruz jakitea.

GOIZEKO ORDU BIAK

Goizeko ordu biak dira, oiuka Patxok bere alabeagaz bere egoitzan egoan mutil gazte bateri iñotsan. Uste dozu gaba osoan emen egon zeintekezela? Ez dot uste esan bearrrik dagola, baiña bai, gazte bikotea eskongaiak ziran, eta alkarregaz bakar-bakarrik egozan. Etxeko gelan egozan.

Eskerrik asko jauna, mutil gazteak erantzun eutsan, baiña ez dakit egon ba neinteke, lenago emen geratzeko nire amari baimaena eskatu bear dausat. Emen jarraitzeko bere, amaren, baimena bear dot.

IZARAK-OE- IZARAK

Larunbat iluntzean Joseba nire gizonak nire amagaz antzokira eroan nindun, Mirenek iñostan, pelikula polita izan zan eta egia esan oso atsegintsu ikusten negoan, baiña une baten maitakerizko gustiz gogorra zan atal bat agertu zan, eta amaren ondoan lotsatuta aurkitzen nintzan. Larritasun une onetan, urduri nengoala nire amak besoa luzatu eban eta nire eskutik oratuta, esan eustan.

Begira ze izara politak diran. Non erosi ete dauz?

GIZON BERE-KOIA

Nire gizona guztiz berekoa da, nire auzuneko Marisak oso asarre iñoan. Marisa, andra gazte ondiño, ile batzuk dira bere gizonagandik banandu zala, eta banatze au azaldu naian, bere gizonagaitik, senarragaitik, bein eta barrio asarre ta oiuka guztiz berokoa zala esaten eban.

Zuk diñozuna, Marisa, ez dot guztiz argi ikusten, zegaitik, zer dala ta diñozu zure gizona berekoa dala, bestaldeko Andresak iñotsan.

Ara, esate baterako, adibidez, jarraitu eban Marisak, “Ni ilten nazanean” esan bearren... beti “ni ilten banaz” esaten eban.

ULEA DUAN MOZTU

Notin, gizon batzuk burua txapela eroateko bakarrik ez dabe, ez daukie. Zelako burutasunak izaten dabez ba. Zorion-bide onerako izanik, eskertzekoa izango litzake.

Ara emen nire auzuneko “Alper” deritxon auzokideak zer asmatu eban bere ule ta bizarra duan moztu al izateko.

Bizartegirantz joiala kalean topo egin eban mutil kozkor bat eskutik artuta bikotea bizartegian sartu zan. Bizartegira sartu baiño leenago Alperrek mutila ondo be ondo aolkatu eben esanez.

Biok batera bizartegi orretara sartuko gara, zuk be ulea mostu bearrean dozu eta. Leenago niri moztuko daustaz ule ta bizarra, ta gero zu zure ulea moztu daizun jezarriko zara jezarlekuan. Bizar-motzailearen lana, beingoan egindako lana nik ordainduko dot.

Alan egin eben. Bikote bizartegian sarturik, gizonari, Alperleri ule ta bizarra, gitxienez amabots egunekoa, moztu eutsazan. Gero mutikoaren ulea moztuteko txanda eldurik jezarri zan.

Arik unetxu batera Alperrek bere errekin-zaletasuna asetu al izateko bere eskua prakako sakelera sarturik, errekin-zorrotxua utsik egoala ikusirik, arritze kifua eginda esan eban.

Arraioa, errekin utsa dot, eta ni errekin-gabe ez naz gizona. Kale onetan or goragotxu dagon estankura joango naz, mutilaren ulea moztzen dozun bitartean, beingoan itzuliko naz.

Bereala Alperrek bizartegitik urten eban. Baiña asti luzea joanda ta gizona ez zala agertzen ikusirik, mutilari esan eutsen.

Zer, zure aita nora jan da, ba? Ez dator ala?

Gizon ori ez da nire aita, mutikoak erantzun eban. Kalean aurkitu nau ta ulea duan moztuko daustela esan daust, eta sartu nau gela onetara.

GUZUR ONDOREA

Jon eta Mikel gazte, mutil gazte, mendizale amorratuak dira. Igande ta jaiegun guztietan, beintzat bai geienetan, mendira joaten dira. Eguzki, bero sargoritsua nai edurtze izugarria izan, mendi gorantz bidean aurkitu al izango dozuz.

Orain dala ile batzuk, aste-buru baten, lau egun lan gabekoak ebezela ta urrunki zan mendi goi batera igotea erabagi eban. Eguraldi kaskarra, ingurutako lurraldeak edurrez zurituri ziran, ekaitz eta aizea indartsu, baiña gure mendizaleak euren zorro mendirako tresnakaz ondo ornidurik, astunak benetan, mendirantz adoretzu ta alai joiazan.

Baiña zoritxarrak atsedetik ez dau izaten, eta asteguna naiz jai-eguna izan, eguraldi eguzkitsu naiz edurtsu izan, edozein sasoi agertzen da. Baso aborotsuan ibilli ta ibilli norantz joan jakin eziniñik, abaro aretatik urteteko norantz egin ez jakiñik Jon eta Mikel oso kezkatu, larri, urduri aurkitzen ziran, baiña ara non basoko zugaitz enbor artetik argi izpi makal bat non ikusten daben.

Jon, bere lagunari Mikelek iñotsan, ni amesetan naz, edo emendik urbil gure gaizpena dogu. Zugaitz orrein adar abarotsu artetik argi izpi bat ez dozu ikusten? Basetxe bat ikusten dodala esango neuke, goazen bertarantz.

Bai egia da, Jonek iñotsan, neuk be iñoiz ikusi ez dodan argi gozo, itxaropenez betea ikusten dot. Gosez, nekatuta ta bildurrez nire gogo, adorea lurpean egoan eta argitxu orrek berbiztu dau. Goazen bertarantz alik arifien.

Gure bikoteak olan egin eban. Ziurki euren gazkatzailea izango zan argitxu orretarantz abiatu ziran. Unetxu bat geroago Jon eta Mikel basetxe aundi eder-eder bat ostaetxea biurtua izan zan batean aurrez aurrez aurkitzen ziran. Bikotearen poza ta arritasuna azaldu eziñekoa zan. Ostaetxe onetan beste txangolari batzun artean, neskatil kirri, lirain, eragarkarri eder eder bat, bere edur-kirol zaletasuna asetzeko naian joian da aurkitzen zan.

Gure bikotea osaetxean on-artua izan zan eta ekaitza beratu arte bertan geratu ziran. Mikelek neskatil poli aregaz adiskidetasun berezia izan eban, adiskidetasuna baño geiago uste dot, bada gaberdian ixil-estuka alkarregaz sarritan izaten ziran.

Eguraldia obeagotu zanean gure mutilak euren bidean, esker-onez txangolaikideak agurtuz, joan ziran.

Arik ile batzuetara Jonek eskutiz bat artu eban. Gutuna neskatil kirru, liraiñaren uriko Beratari, Notario, batena zan. Jonek bere adiskide Mikeleri deitu eutsan telefonotik eta iñotsan.

Jon, gomutako zara zelan gure azkenengo bidalian babesleku izan genduan etxean zelan neskatil lirain, eragarkarri, eder bat ezagutu genduan, ez?

Bai, Jonek erantzun eutsan, ez naz gomutako ba.

Baita be gomutako zara zelan nire izena emon zutsan, ez? inotsan Mikelek

Bai, eta naizta belu izan, parkatu eistazu, Mikel, Jonek esan eutsan.

Bai, parakatu ezeze eskerrak emoten dauñsudaz. Baratari baten gutun bat nire eskuetan daukat, eta neskatilea zelan il zan adierzoten daust, eta bere ondasun ugariak, dan danaren ondore, oiñordeko nazala diñau. Mila esker Jon.

OLERKARIAREN ASKARIA

Jakob Deille olerkari ospetsuak, bere oizko askari arrunta zana sagar bat egosita gerturik eban gelara gazte mizkin bat sarturik, olerkariaren askaria jan eban.

Arik laster, olerkaria askaria jateko asmuz etxeratu zanean, bere baskaria norbaitek lapur-
tu eballa ikusi eban.

Ostaetxe-kidea zan etorri-barri gazteari deiturik esan eutan. Bere askaria nork jan edo
lapur-
tu eban, ikusi ba eban itaundu eutsan. Gazteak berak ez ekiala bere askariari buruz ezer,
erantzun eutsan. Orduan olerkariak jarraitu eban. Tamala dot jazotakoa, sagarra, nire askaria
arsenikoz, etxeko saguak iltzeko, edendua egoalako.

Entzun orduko mutila oiuka, zoro baten antzera asi zan. Ok-eragile bat emoidazu, ilteko
zorian nago ta. Nasaitu zaitez, Delille esan eutsan, ziria sartu dautsut, baiña aurrerantzean ola-
korik ez eizu egin.

NORTASUN-ARAZOA

Denver uritik urten bear eban egaketea ezereztu izan zan. Txartel guztiak salduak izan ziran
lez, idazkaritzako andereñoa bidariari beste egaketa bat aurkitzeko alengintzen zan.

Alako baten, bidari bat errekadaren aurrean kokaturik, bere lengo bidetxartela mai ganean
ipiñita.

Egazkin au artu bear dot, eta lenengo mailakoa izan bearko dau, oi-
u egin eban.

Tamala dot, jauna, pozik lagunduko neuskizu, baiña aurretik, erreskadan dagozanak zain-
du, bear doaz.

Gizonak jaramonik egin barik, iñoan.

Ba al dakizu, nor nazan? abots indartsuz danak entzun egien, iñoan.

Orduan, andereñoak irribarez ozen-gaillua arturik, erantzun.

Erantzun eistazue, emen gure artean, bere burua nor dan ez dakian jaun bat dogu. Bere nor-
tasunaren buruz, baten bat argibideak emoteko gai ba da, mai onetara etorri daitela.

Gizona ostendu zan, eta danok andraiñoa txalotu eben.

ERABILLI-AGIRIA

Mikel nire bestaldeko Josebaren seme berebill-kotxea erosteko asmuz da, baiña lenago,
erosi baiño lenago gidaritzeko erabilli-agiria eskuratu bear dau. Txartel ori lortu naian Mikel
"Auto-Escuela" gaztelarrez deritxon ikastetxe baten dabil:

Egun baten bere irakasleaz joiala, kotxean joiala, beste kotxe batek igarotea eragoitzi
eutsan, Mikelen kotxeri igarotea eragotzi eutsan eta Mikelek nasaitasuna irudituz, ardurabakoa
zalalakoa egin eban.

Orduan, bere irakasleak esan eutsan.

Ondiño asko ikasi bear dozu.

Arik asti labur batera, semaforoa orlegitu eiten itxaroten egoala, Mikel bere kotxeaz itxa-
roten egoala, bere atsetik etorren berbillak koska leuntxu bat bere kotxean emon eutsan. Mike-
lek nasaitasuna ez eban aldendu, baiña azterlariak, beregaz joian azterlariak, bere burua eragi-
ten eballa nabaritu zan.

Argia aldatu zanean Mikel aurrera jarraitu eban, baiña bere atsetik etorrean kotxean bere
aurrean, Mikelen kotxeraen aurrean, jarrita bidea eragotzi eutsan. Orduan bai, Mikel bere
nasaitasuna etenda, gogor eta aldizka turuta jo eutsan.

Orduan azterlariak begirakada maltzur bat egiñik esan eutsan.

Orain bai ikasle trebea zarala agertu dozu.

BURUA BETI SORBALDA GANEAN

Ezagutzen ez ziran gizon bi alkartzean, topo egiñez, batek besteari esan eutsan.
Nik uste arpegi ori beste nonbaiten ikusi dot.
Ba, arritzekoa da, erantzun eutsan besteak, ba da nik burua beti leku berean eroaten dot.

URAK MOZKORTU

Areñegun zekulako mozkorra izan neban. Beraz arritzekoa, baiña urak mozkortu ninduan, ardao-zale batek bere adiskideari iñotsan.

Adiskide, zer diraustazu, lagunak erantzun, urak zelan mozkortu lei gizona?

Areñegun izugarrizko euritsea izan zan, gogoratuko zara orretzaz, eta etxerantz nentorrela Txomiñen ardandegian sartu bear izan neban, eta jakiña ardao bat emendik, beste bat ortik, azkenean betikoa, sabu-sabuka.

GAZTETASUNA LORTU NAIAN

Osalaritza ikasten eban gazte batek, gizagaztetzeko gai baten ziardun. Oporraldien bere etxean ikasketa bardiñaz jarraitu eban. Oporrak amaituta barriro Ikastola Nagusira biurtzeko ordua eldu jakonean, bere asmakisuna gertu egoala uste izanik, amari, bere amari, auxe rsan eutsan.

Au, bonbilla txiki onetan dagona, gazte biurtzeko gai bat da. Ilero koilarakada bat artu eizu beratatik, koillarakada bat artu eizu.

Ikaslea urrengo oporretan etxeratu zanean, erriko geltokian 25 bat urteko andrazko bat besoume bategaz ikusi eban. Andrea beragana urreratu ta besarkada maitekiro bat emonez, esan eutsan.

Zure ama naz, seme.

Ez neban uste, semeak esan eutsan, gaztetazunez batera, amatasuna be lortu litzakela.

Ez, ez, au ez da zure anaia, au zure aita da. Onek, irrikaz jabeturik, era baten bonbilla osoa edan eban, eta ara emen ondorena.

ZIRKOAN

Bestaldeko Kepa berak nai dauan baiño luzarago langabe da. Naizta alegin osoa langoki bat billatzen ziardun, bere guraria ez da betetzen. Arazo onen ondorioz Kepa oso goibel, lantegirik lantegi ertsiturik, azkenean zirku batera urreratu zan, jakiña lan billa.

Tamalo dot, zirkoko nagusiak esan eutsan, baiña orekari izan ezik ez dot beste langile bearezunik. Soka batetik dindilizka alde batetik bestera ibilli bearko dozu, bea tximiñoz beterik izango da ta ezelako babeste, sarerik ez dozu izango.

Jaki-gela bako etxea, urdail utsa gogorra da ta, Kepak naiezean bere burua zirkuan ikusi eban. Tximiñoz mozorroturik, ikusleen begirakadak inguratuta sokara igon eban. Lenengotan astiro ta ardura osoz ibilli zan, baiña ustekabez oreka galdurik, leiotegira jauzi zan. Bereala alaka, oiuka sorospen eskatzen larri asi zan, leioek irauntsi nabe!

Isillik egon zaitetz gizona! asarre leiotariko batek esan eutsan, nai dozu biok lan-gabe geratu gaitezan?

BAZKARI LAGUNA

Gure artean, euskotarren artean, jan-edatea kirol berezia da. Ara emen nire taldean jazoriko barregai bat.

Ez dakit zer ospatzeko zan, eta egia esan orrek ez dau lebarik, bazkari eder bat egitea erabagi genduan.

Nik aragia ekarriko dot, Anderrek esan eban.

Nik ardaoa, Josebak iñoan.

Nik ogia, Peru ogigilleak.

Eta zuk Mikel, zer ekarriko dozu? Mikeleri itaundu geutzon.

Nik neure anai Koldo ekarriko dot, erantzun eban.

ITXASOAN ITO-OGEAN IL

Iñaki mariñel gazteak itxasoan dau bere bizibidea ta egunero itxas-ontzian beren urak zeazkatzen dauz.

Egun baten bere lanera joiala, adiskide batek diñotso.

Iñaki, itxasora joaten zelan ausartzen zara? zure aita, aitita ta osaba be itxasoan ito zirala jakinik, zelan zoaz itxasora?

Eta zure aita, aitita ta osabak, non il ziran, Ander, ba? Iñakik itaundu eutsan. Non ilgo ziran ba, ogean, erantzun.

Eta ogean il ba ziran, zeu zelan ausartzen zara egunero, obeto esanda gabero, ogean sartzen?

ELEFANTE-BELARRIA

Jantetxe bateko nagusiak bezero zerrenda aundiagotu naian leloa au erabilten eban. "Ogei ogerleko emongo dautsagu, geuk emon-eziñeko jakiren bat eskatzen ba dausku". Lelo au irakurtean andra gazte batek bere baitan iñoan. Aukera ederra dot gaur doan jateko, eta maizaiña agertu zanean esan eutsan. Elefante-belarriko ogitarteko bat, niri ekarri eidazu, mezedez. Arik unetxu batera maizaiña barrero agertu zan eta esan eutsan. Emen dozuz zure ogei ogerlekoak. Zuk eskatuko ogitartekoa ezin dogu atondu.

Jakiña, andra gazteak diñotso, ez da arritzekoa, nondik elefante balarri bat lortuko zeunke ba?

Ez, ez, maizaiñak iñoan, ez da belarriagaitik, ezintasuna ez da ori, ogi andiak amaitu jakuzalako baiño.

NIRI ZER?

Adiskide bi kotxe baten gaba ia osoa edantegitik edantegi ibilli ondoren euren etxetarantz doaz. Alako baten euratariko batek besteari diñotso.

Zoaz ezkerretara, gizona! ... Bene-benetan dirautsut talka, topekada, egingo dogula!... Ai ene galduak gara! ... Baiña zergaitik ez daustazu jaramonik egiten? ... gortute zara ala?

Baiña niri zer diñaustazu? besteak erantzun, zeu ba zara kotxearen gidaria

LEKAIMEAK ETA KOTXEA

Lekaimez beterik joian kotxe bat, ertzain batek astiroegi joangaitik gelditu eban.

Ertzaiñak, kotxe gidariari ia zergaitik ain geldiro joian, itaundu eutsan, eta onek olan erantzun:

Ara ertzaiña jauna, lekaimeak erantzun, iragarki guztiak "40" agintzen dabe.

Ori arreba maitea, ori bidearen zenbakia da.

Nire Jaun eta Jaungoikoa! orduan lekaimenak diñotso, orain ulertzen dodan nire atzetik etorren kotxe-dunak "204" bidetik giñioazanean egiten euskuzan oiua.

URRUTIZKIÑA-TELEFONOA

Erritxu bateko abade batek Meza Deuna ondoren umetxuak eleiz-gelara egalara. Umetxuei ipuin bidez kristau-ikasbideak azaltzen eusteozan.

Egun baten otoitzaz, otoiz buruz itz egiten egoan eta umetxuei iñotsen.

Zuek otoiz egiten dozunean Jaungoikoaz berbetan zagoze, baiña Bera ez dozue ikusten, ostera Jaungoikoak zuek diñotsozuen entzuten dau.

Azaltzun geiago emon naian, jarraitu eban. Ara, zuek urrutizkiñetik, telefonoz berba egiten dozunean, norbaitegaz berba egiten dozunean, berak diñoana entzuten dozue, naizta solaskide ez ikusi. Otoitza bardiña da. Zuek Jaungoikoagaz berba egiten dozue, baiña ez dozue ikusten, bera Jaungoikoa ariaren beste aldean dago, zuei entzuten ariaren beste aldean dago.

Une onetan umetxu jagirik, itaun au egin eutsan.

Jauna, zein zenbakia dauka? Zein da zenbakia, Jauna?

SAGARRA BERE ADARREAN

Manutxu otargilearen semea benetan mutiko azkarra da, baiña baita be biurria, ara leengo egunean zer jazo jakon.

On Serafin erriko abadeak bere etxe alboko ortuan San Pedro sagar umo-umo gorri, eder, irrikagarriak daukaz, eta Manutxu ortu albotik igarrotean, sagargosea nabariturik, sagar ganean izan zan.

Baiña zoritxarra unetxu bar geroago On Serafin orturik bidali bat egiten joiala, ara non ikusten dauan eta zugaitzpera urbildurik, oiuka iñotsan.

Jaitsi adi, barraban ori, bada makila onegaz lepoa berotu bear daut!

Jaitsi adi bai, gaur onak artu bear dozak eta!

Nasai egon bedi, abade jauna! berorrek sumatzen dauana ez da eta. Nik eskuan dodan sagar gorri gozo au, lurrean sagarpean artu dot eta jauzi dan adarrean ezarri naian zugaitz onetara igon dot.

Asmamen bakoa mutila ez da, ez, ez sagarrak lapurtzen.

SAGAR ERREA

Isaac judatar erlijio zalea da, ta bere aginduak osoz betetzen saiatzen da. Isaac bein jantexe baten erakus-toki, eskaparatean, txarri errea usain gozo erakagarriaz egoala ikusi eban, eta

jakiña bera jateko gogo bizi bizia urdailean nabariturik, sartu zan jangelara, mai eder baten jezarri ta txarrikia eskatu eban.

Naizta nire erlijioak ekintza au, nik egingo dodana, debekatua izan, beingoagaitik parkamen osoa izango dot.

Gelazaiña azpil aundi, eder baten txarrikia aboan sagar eder bat ebanagaz agertu zan une ber-beratan, ara non, Isaak judatarrak bere adiskide Samuel ikusten dauan, bere adiskide Samuel be Judatar erlijio-zalea zan, adiskidea Isaac bezela sinagogako kidea zan. Gertaera onek Isaac oso urduri, lotsatuta estutasunetik zelan urten jakin eziñik, Samuel agurtu ondoren esan eutsan.

Sagar erre bat jateko eskatu dot, baiña zelan uste izan olako laguntzaz ekarriko leuskidela domeka arratsalde baten

ATXANDAKO MENZULOA

Txomin eta Kepa lan-artzaileak dira etxe, zubi, errepide lanetan Txomin eta Kepa S.L. ize-nagaz ziardun dira.

Aspaldian eraikitze lanak ugari dira, ta orretariko bat Artsandako menzuloa egitea da, eraikite osoz garrantzitsua Uri Negusirako Bilbontzat. Bizkaiko Foru Aldundiak eraikitze au, menzuloa egiteko, deia, enkatea egiñik iru enkat-egile aurkeztu ziran.

Lenengoak ogei miloi laurleko jarri eban neurria. Bigarrenak ogeita bost miloi eta irugarrenak Txomin eta Kepak Bots milloi laurlekogaitik itundu ziran, lanak egitea itundu ziran.

Foru Aldundiko arduradunak arritu geratu ziran, Txomin eta Kepan opaketa gaitik arrituta egozan, eta uts, errakuntza bat zala uste eben. Arazo au azaldu naian Txomin eta Kepagaz alkarizketa bat egitea erabagirik, esan eutsen.

Zuen opaketa uts nabarmena izan dozue, bost milloi ez dogu uste menzulo orren eraikitea zuzena danik.

Bai, zelan ez, Txominek esan eban.

Eta zelan atonduko zarie ba, azaldu eiguzue zelan egingo dozuen lanak, Foru Aldundiko arduradune iñotsen.

Ara guztiz erreza da. Txomin nire lankidea Derio magaletik jo ta ke asiko da lanean, eta ni era bardiñean Deustuko aldetik, magaletik asiko naz, ariketa biok alkar topatu arte, Kepak iñotsen.

Baiña, alkar topatzen ez ba zarie? Aldundikoak.

Ondiño obeto, olan menzulo bi diru bardiñean eukiko dozuez.

LEIAR GEIGARRIA

Sevillako Sierpes kaletik ijito bat “Lurgiñen Kasino aurretik igorotean kafetetxe onen aurrean gelditzen da”.

Kafetetxean beste andra gizon artean bazkal-osteko akeite artzen gizon guztiz lodikote bat aurkitzen da. Gizon au bere loditasunagaitik ijitoarentzat nabarmena eritxon eta leioko leiarra beste eskuaz joten dau, eta atzamarragaz gizon lodikotea erakutsirik diñotso.

Jauna, zuri jauna dei egiten dautsut.

Niri doñotso barrukoak, zer gura dozu nigandik, ba?

Jauna, mezedez esaidazu esaidazu jauna, leiko leiar au geigarria ba da ala ez.

BARRUKO EDERTASUNA

Patxo ta Mikel edantegian alkarizketa, txantxetan, alkarregaz txantxetan dira eta Patxok bere adiskidera diñotso.

Ire andra Patxi, Pantxike ire andrea, benetan dok itsusia gero, ostera guztiz begikoa dok.

Oker ago, ezeik uste izan ain itsusia danik, bear ba da kanpotik, azaletik olan critxi, barrutik edertasun berezia ta nabarmena dau.

Arraioa, zuritueik orduan. Zuritu!

TALDEAN

Ander eta Koldo adiskide bakan-eziñak agiñeko miñak dirala ta aspaldion guztiz kezkatu dira. Arazo onegaitik aginlariagana joatea erabagi dabe.

Arrati tranbia artu ta Bilbon egun baten agertu ziran. Korreo kaletik zear eldu ziran aginlariaren egoitzara, "Joseba Agirrebeitia- Odontologo- Consulta de 4 a 6", atean egoan adierazia irakurri eben.

Arraioa, eurentariko batek iñoan, apur bat itxaron bearko juk. Gu bi gozak eta beste bi gula-ko agineko mindun agertu arte itxaron bearko juk.

AURGITE

Nekane Patxo nire auzokidearen andrea Umedun da, ta aurtxo txikia lurbira onetan gugaz izateko ordua edo eguna eldurik, osaetxean bere gizon Julenegaz aurkitzen da. Nekane ordua eldua dala ta kirurgi-gelara eroan dabe eta gela aurrean batera ta bestera, urduri Osagilea noiz urtengo dauan Julen zain dago. Olako baten Osagilea agertzen da ta Julenek bere andra Nekane ta umetxuagaitik itaunduten dautso.

Zorionak, Osagileak Juleneri diñotso, seme eder-eder bat dozu, osasuntsu da, naizta aurgite, jaiotza orduan arnasaigaia, oxigeno, jarri bear izan dautsu.

Tamala da, Julenek erantzun, guk, ni bezala Julen deitzea nai genduan.

ZORI TXARRA

Koldo itxura ikaragarriaz Basurtuko Osaetxera eroan dabe. Bere gorputza zapaldiz beterik. Osagileak ain itxura ain negargarriaz ikusirik itaunduten dautso.

Baiña gizona, zer jazo jatsu ba?

Ara jauna, goizean soloan lanean ibilli ondoren etxerantz niñoiala motodun batek jo ta lurreratu nau, jaitsi orduko errepide beratatik etorren kotxeak sekulako zartadea emon daust. Kotxea igaro bezela autobus batek jota jaurti nau ta intxaontzi batek azdazkaturik neure burua ikusi dot. Ostas ostaz beragandik, itxasontzitik gaizkatua izan orduko izugarrizko ipurdiko egazkin baten elizegandik artu dot.

Ez jarraitu! Ez jarraitu! Osagileak diñotso. Motordunak jo zaitula siñesten dodala, uste izan eizu, baita be kotxen topekada ta apur bar estututen ba nozu autobusena be bai, baiña itxasontzi ta egazkiñea... larregia da.

JOLAS ALDIA

Aitor eta Lukin euren erritik urrunki zan uri batera trenean joiazan.

Bidalia laburtu naian eta astia atsegintsua emoteko Aitorrek asmaketa au bere lagunari agertu autsan.

Ara, nire izena Aitor da. Nire amaren seme bakarra zelan deitzen da? Ba ez dakit Lukik erantzun. Aitor, gizona, Aitor. Arik ile batzutara Lukik bere erritar bateri itaun bardiña egin eutsan. Ara adizkide, nire izena Kepa balitz, nire amaren seme bakarra zelan deitzen da? Kepa bere erritarrak erantzun. Ez gizona, Luki gizona, Luki!

IZARPEAN

Patxo Errotazarreko egun batzuk, oporaldia, emoten sortaldean egon da.

Izarpean bazkaltzen nengoala, iñoan Patxok, bere erritarrei iñotsen, sekulako euritzea izan zan.

Ederto bustiko ziñan, ez, erritar batek itaundu eutsan.

Ba! Bustitzeak ez ninduan arduratzen. Tamalena iru ordu gitxianez emon nabazan azpilsopea jaten. Naizta geroago ta leiaka, arinka biziagoan jan, ia iru ordu sopea jaten emon nebazan.

TOPEKADAKA

Gure Euskalerrri onetan arito-topeketa toki ugarietan guztiz guztokoa da. Atseritar txangolari bat oporraldia emotera Markinara eldurik, Igande baten arito topeketa bat ikustea erabagi eban. Berantzat guztiz ezezuna zan jokaera au baiña arreta aundiz saioa jarraitu eban. Ikusleak zaletasunez, irrika biziak zirala ikusirik, bera be bizkortzen, berotzen joian eta azkenean diru apur bat jokatu naian alboko ikusle bateri itaundu eutsan.

Adiskide, abere bi orreitatik zein dan ona esango daustazu?

Zuria da, erantzun eutsan.

Txangolariak bere prakako sakeletik dirua atara eban eta bereala aarito zurigaitik jokatueban.

Baiña zoritxarra, txangolarientzat zoritxarra, aarito baltzak sekulako narrukadea zuriari emon eutsan, burua be ia zatiturik, odol bizian ia ilik geratu zan.

Txangolaria bere ikuslekidearegana joan da diñotso.

Aarito zuria dala ona ez zeusten esan ba?

Bai, barrero diñotsut, aarito zuria ona da, beste osteria iltzaile, zital utsa da.

ERA BEREZIA

Prudenek bere gibela dala ta Osagilegana doa ta bere aginduak betetzen ez dauazalako sekulako atarraldi jarri dautsa.

Nire esanak betetzen ez ba dozuz, nigana alperrik zatoz. Olan jarraitzen ba dozu zure azkena izango da. Alkolaren aurka ez dozu ezertxu be egiten eta ori kaltegarria da.

Osagile jauna, ilero amabost milla ogerleko alkoletan eralgiten ba dot, alkolaren aurka eralgiten ba dot.

Zein da zure alkoholaren aurkako borroka ori. Osagileak diñotso.

Ara jauna, nik zenbat eta alkohol geiago edan, besteetat gixiagi geratuko da, alkohol gixiagi geratuko da.

ZALANTZAKO

Zu Josaton, diñotso Kepak bere lagunari, sendagile-ebaketari oneikaz ni ezin naz entzindu, eurakan ez dot sifisten.

Zergaitik diraustazu ori, Kepa? diñotso Josantonek.

Ara aitu eizu, lenen lenen zomorroa jartzen dabe, gero aitzo, labaiana zorrotz-zorrotzat erabilten dabez, guzti au gixi eretxitik, ezelako aztarnarik geratu ez daiten esku-larruak ipinten dabez, Josantonek iñoan.

ZENTZALDI BIKAIÑA

Erremun bere adiskide Jonegana ikustaldi bat egitera joan zan. Jon lurralde naiko otz baten bizi zan, mendi goi baten eraikita eban bere egoitza.

Bazkaldu ondoren, ondo bazkalduta, aize ozkirri batek inguruak astintzen ebazan. Naizta goizaldean egurraldi epela ta erosoia izan, bazkal-ostean otsituten, eguraldia otzituten asi zan, orduan Erramunek bere lagunari itaundu eutsan.

Jon, emen otzak azten diran egunean zer egiten dozue?

Ozkirri danean? berogailugana urreratzen gara, urbiltzen gara, Jonek erantzun.

Eta otz otz danean, barrero Erramunek itaundu.

Orduan biztu egiten dagu, berogailua biztu egiten dogu.

GABAKO LANA

Lukas eta Fermin adiskide benetakoak dira. Egunero arratsaldeetan batera alkar-izketa mamintsuan ikusi al dozuz.

Olako atsedeen-aldi baten Lukasek bere adiskideari diñotso:

Nik diru apur bat geiago eskuratu naian, lana etxera eroaten dot, nire etxean egiteko eroaren dot.

Nik ezin dot Lukas, Ferminek esan eutsan, nik or ikusten dozun tranbide orretan erraileak, rail, garbitzen dodaz.

Lan astunegia etxera eroateko.

MOZTASUNA

Nikasion semea, mutil gaztea bera, atsen-aldi bat gozatzen Madrilerara joan zan.

Bizi bide au edo Madrile guztatzen jokalako, etxera itzulteko leiarik ez eban agertzen. Bere aitak iru edo lau bider dirua bialdu bear eutsan, eta Jakiña, diru-zorro oparoaz uri aretan eder- to denporea Nikasion semeak emoten eban, etxera itzulteko leia barik.

Azkenean Nikasiok azperurik, telegrama bat ipiñi, bialdu eutsan, esanez:

Zugaz egon gura dot, ba zatoz ala joango naz.
Semeak telegrama onegaz aitari erantzun eutsan.

Bai.

Nikasiok arrituta, bere semearen erantzuna dala ta, arrituta, beste telegrama bat bialdu eutsan, iñoala.

Bai, Zer?

Semeak dirua gitxi eragiltean arren edo, olan erantzun.

Bai, aita.

ASTIAREN ARAZOA

Afari oparo ta gozo, guritsu baten ondoren Ander eta Patxik txolatxu batzuk artzea era bagi eben.

Goizaro ederra zan eta txolatxu ta txolatu bitartean, alkar-izketan denporea, astia, kontu barik joan jaken.

Konturatu ziranean, goizaldeko orduak zirala, Anderrek bere adiskidari esan eutsan.

Gaur etxera eltzen nazanean nire andreak guztiz aserre ordutegiari begiratuko dautsa.

Ori ez da ezer, Patxik, iñotsan, nireak eguntegira begiratuko dau.

BARRIKETAN

Jantetxea bazkaldu ondoren, beraz guztiz ondo, adiskide bi alkar-izketan, obeto esanda berriketatan ebiltzan, alkar ixil-mezuak ziran euren jokaera.

Olako baten adiskidetariko batek besteari, bere lagunari, diñotso:

Nire arazoa adiskide, nire andrea guztiz berbalduna dala da, orrexegaitik zugana itz, berba, egiten etorten bearturik izaten naz.

Ez da orrenbesterako izango?

Ezetz? Ni mutu geratuko banitz, aste bete baiño geiago joango litzake bera, nire andrea, konturatzeko.

GOGARPENAK

Peru ta Patxi zazpi Kanean txikito batzuk artu ondoren parkera bidali bat egitera joan ziran.

Bertako osinean atea ikusten geratu ziran. Antzar, ate ta beste egazti igelari batzuk an ebiltzan alde batetik bestera gozoro iger.

Patxi ta Peru osintxua inguratzen eban burdin-sareaz balioatuz, egaztien gora berak, euren jolasteakaz gure bikotea arrituta zan. Olako baten Peruk bere ordutegia eskuturretik kendu ta uretara jaurti eban.

Peru, zergaitik jaurti dozu? Patxi itaundu eutsan.

Uger, igel, ba daki jakiteko, erantzun Peruk. Baiña ordutegien giltzari emon dautsazu, ala? Ez, Peruk erantzun. Orduan, uger, igel, zelan egingo dau ba!

IZOTZETAN

Anbrusek telebistan eskimalek arrantzan zelan egiten eban ikusi eban, egia esan guzta jakon eta saio bat egitea erabagi eban.

Izotzetan amua sartzen asi zan une beratan, abots bat entzun eban iñotsola:

Emen ez dago arraiñik.

Beste zulo bat eginik amuari, amua sartu orduko, barriro abots bat entzun eban, iñotsola:

Or ez dago arraiñik.

Bein eta barriro zuloa egin izotetan zuloa egin ondoren eta amuarria amua sartu erantzun bardiñagaz, azperturik bere baitan iñoala, seigarrenez amuarria ta amua zulo bat eginda, izotzean zulo bat eginda, sartu eban.

Orain be abots batek diñotso:

Or ez dago arraiñik.

Naiko da! Jaungoikoa zara ala?

Ez, kirol-izotzketa lekuaren arduraduna naz.

ZIDAR ETA URRE ESTUGUAK

Jaione ta Iñaki ereun seme Iñakiren urtebetetzea ospatzen dira, lenengo urtebetetzea zan, eta Iñakik bere andreari diñotso:

Jaione maitea, zidar esteguak ospatzen, gure izar-esteguak ospatzen Kankunera eroango zaitut.

Eta urre-esteguak betetzen doguzanean nora eroango nozu?

Ez dakit Jaione, bear ba da, zeure billa Kankunera joango naz.

ADISKIDETASUNAK

Jon eta Ander mendizaleak dira. Bein baten oiturazko bidali bat egiten zirala edurtze izugarri baten zuzenbide gabe, nora joan eziñik, nora joan edo zelan urte jakin eziñik, aurkitzen ziran. Euren larritasunean, goibelen aurkitzen ziranean, ara non San Bernardo-txakur bat non ikusten daben. Ikusiko orduko Jonek bere lagunari esan eutsan: Ander, gaizkatuak gozak, ara or jatorrek gizonaren adizkide berezien, onena. Alan dok, eta ganera txakur bateaz jatok.

ERRETAKO BAIMENA

Endika tabako erretan zalea da. Bein baten bere lantegi zeregiñean bezero bateaz eben arazoa zuzendu naian, onein idazgelara joan bear eban.

Luzaro bertako idaz-gela aretako arduradunagaz alkar-izketa egon ondoren eta ikustaldi ori eragin eutsan azarora zuzenduta izanik, atserden apur bat artuz, zigarro ba erretako baimena Endikak eskatu eutsan.

Tamala dot gure lantegiko arlo guztietan, eta emen be bai, zigarro erretea debekatuta dogu, parkatu.

Gure bikotea alkar-izketan jarraitu eben, eta arik laster, Endikak idaz-gela beratan, ara non errekin-ontzi bat Endikak ikusten dauan. Bereala Endikak alkar-izketa kideari esan eutsan.

Jauna, zuk emen debekatuta dala erretea esan daustazu, orduan errekin-ontzi onek zer egi-
ten dau emen ban?

Aaa! bai, errekin-ontzi ori baimena eskatzen ez dabenentzat da, erantzun eutsan...

BEREALA ETORRI

Maritxu etxeko-andrea bera, Patxi berre gizonari diñotso.

Aa Patxi, Bekoetxeko Mirenegana noa, lengo egunean itxi eustazan tresna batzuk eroaten
noa, bereala, beingoan etorriko naz.

Ederto, Maritxu maitea.

Patxi, baiña ez eizu aiztu orduerdirik orduerdira lapikoa eragitea.

ZIZPILLOTEGIAN

Ara Anbrus, atzo nire andreak eroan eban zizpilotet au atzera dakartsut, diñotso Peruk den-
dalariari.

Zelan ba, ez dabil ondo ala? Anbrusek dirautso.

Bai, ibilli ondo dabil, baiña... onezkoak egin doguz eta... oraingoz ez dogu bear.

PERUTXU TA MANUTXU EIZTARIAK

Perutxu ta Manutxu erbi eiztaraik dira. Zeregiñ orretan euen txakurrakaz mendian aldapa
gora ikustea erreza izaten da.

Manutxuk Baltza erbi-txakurraren jokaera ez dau onartzen. Egun baten olan diñotso bere
eizta-kideari.

Peru, Baltza txakur orregaz erbi battxu bat be ikustea ez dogu izango bat be erreza, gure
bion atzetik dabil beti.

Bai alan dok, Perutxuk erantzun eutsan. Baiña ori ez dok arritzekoa, amaika beraun txirri-
kada txakur gaixo orrek gure aurretik joaneagaitik artu yozak.

LANTEGIAN

Kepak bere lantegiko nagusiari diñotso.

Ara Jauna, oker bat izan dozu urrean. Illabeteko estalkian amar milla laurleko gitxiago jarri
daustazuz.

Begira, nagusiak erantzun, lengo illabetekoan amar milla laurleko geiago jarri neutsuzan,
eta zu ixilik izan ziñan.

Bai, alan da Jauna, baiña jakin bear dau ixillarena egin neintekela, baiña bigarrenean ezi-
kusiarena ezin daiket egin.

BURU-ILTEA

Ara emen Lukas lukurrari zer Jazo jakon. Lukas nire albo-erriko gizon zeken, lukurreru bat da. Lukas Lukurrek eskuratzen dauan laurlekoa bere diruzorroan betirako atxilotua da. Baiña azpaldian ez dakit zer jazoten jakon, bere garatz, arazoak, beintzat antza danetik, ez dira bat be pozgarriak.

Azkenean gure gizona lur jota dago, ta bere burua iltea erabagiten dau.

Urka-sokea atondu ta korapilloa eginda, bere idun inguruan ezarten dau, zugaitz adar lodi batetik lotuta, zugaitzpeko tontortxutik bere azken saltuketa egitera doa, baiña zori txarra, sok-eak eten egiten dau ta Lukas lukurrak anka bat non apurtzen dauan.

Soka madarikatua! asarre biziaz Lukasek diño. Il ez nazenean!

IZERDIA ERAGITEKO

Gure gizona osagaitegi, parmatzira, denda au ixiteko zorian zarala eldu zan. Une beratan osagaitegiko arduraduna trenera joateko zorroak gertatzen egoala, eldu-barria zanari itaundu eutsan.

Zer nai dozu? gizona.

Ara, nik izerdia eragiteko zerbait gura neuke, gure gizonak erantzun.

Ederto, artu eizuz bide-zorro bi orreik eta trenaren geltokiraño eroan eistazuz.

BAZKARIA DANONTZAT BIKAIÑA

Peru antziñatik ikusten ez eban Miren lengusiñaren etxera joateko deia betetu naian, dote-re dotore jantzita trena artu ta goiz baten bertarantz doa.

Miren eta bere sendiagandik arrera ezin obea izan ba eban, bere lengusinak, sukaldari bikaiña bere, sekulako oturuntza atondu eban.

Bazkaria amaitu ta bazkalondoko luzea alkar izketan izan, alkar agur-egiteko ordua eldu-rik, Peruk bere lengusiñari diñotso.

Milla esker lengusiña maitea, sukaldari ona zara bai, benetan, bazkaria gozo, bikaiña izan da, egundo be gaur baizen ondo ez dot jan.

Ara. Ez da geuk be, bost urteko etxeko mutikotxuak esan eban.

LEIAR ZATIA

Beinola lapur bat lapurketa bat egin ebalta ta auzi-epaile baten aurrean izan zan, eta onek itaundu eutsan.

Zelan, zeure ez zala jakiñik, eraztuna ostu zenduan ba?

Oker izan nintzalako, epaikari jauna, lapurrak erantzun.

Zelan da ori, azaldu eistazu mezedez, epaileak barrero itaundu.

Ikatz-arri bat zala uste neban, baiña egia esateko, leiar zati bat baiño ez zan.

GUZTIA ERREZA DA

Paru bere semearen gelara sartzen da, eta asarre biziz auxe diñotso.

Jakin daiteke, zergaitik zure gelara sartzen nazan bakoitzean beti telebista ilusten liburuak bazterturik ikusten zaitudala?

Ori guztiz erreza da, aita. Noiz etorriko zarean ez dakidalako. Atean deitzen ez dozulako, gelara sartu baiño lenago deitzen ez dozulako.

ALDAATZ-BERA DA

Gu zurre dala esango neuke Patxo egunkari onek dakarrena, diñoana. Eguzkiaren argia segundoan, segundo baten, 300.000 Km. dabillega.

Bai, benetan arrigarria da, Batxik erantzuten dautso, baiña eguzkitik ona, dana aldaatz-bera dala jakin bear dozu.

SAIETSA

Bestaldeko Fermin azpalditik alboko miñagaz, saitz-miña dala da, guztiz kezkatu, ardurata dabil. Azkenean osagilleagana joatea erabagi eban.

Osagilleak zearozko azterketa bat egini, Fermiñek saiets bat geiago eukala ikusi eban, baiña bere osasunarako Ferminen osasunerako ez ebala garrantzirik, ezezko garrantzirik, bere bezeroari adierazi eutsan.

Gertaera au bere adiskidei esanez, Antton-guzurrek, txantxelaria bera, esan eutsan.

Fermin, gaindikin daukazun saiets ori, kendu egin bear zeunke. Ara, Andanei be saietz bat kendu eutsoen, eta arazo polita atondu zan.

Bai, Antton, alan dok, baiña berak, Adanek, izan eban osagillea neuk be izango ba neu...